



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko uztailaren 5ean

58 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Legea, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).
- Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).
- Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena. Osoko Bilkurak onetsia (33. or.).
- Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (34. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu legez kanpoko jokoak zein bat-bateko loteriaren sorrera. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elikagaien araei buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (36. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoa kentzeko eskatzen da. Osoko Bilkurak onetsia (36. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (37. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure komunitatean oporrak igarotzen dituzten begiraleen eta haurren osasun-premiei erantzuteko agirien banaketarako arauak eman ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (38. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga iruzurrari aurre egiteko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (38. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) elkartearekin. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).
- Mozioa. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da. Osoko Bilkurak bazter utzia (40. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Otsailaren 16an eman eta otsailaren 16ko 30. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuak indarra duen nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testuategina onetsi zuen, dena 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian emaniko baimenaren arabera. Testuategin horrek oso-osorik ordeztu zuen apirilaren 4ko 133/1991 Legegintzako Foru Dekretua, legeko aldaketa asko izan zituen.

2000 Agenda deritzona osatzen duten arauko xedapenen multzo garrantzitsuen barruan, Europako Batasuneko Kontseiluak maiatzaren 17ko 1257/1999 Erregelamendua (EE) onetsi zuen, Europako Nekazaritzaren Orientabide eta Bermearen (FEOGaren) kontu herriak garatzeko laguntzei buruzkoa. Erregelamendu horren bidez beste erregelamendu batzuk aldatu eta indargabetu ziren. Herriak garatzeko laguntzen artean Europako Batasuneko Erregelamendu berriak aipatzen ditu nekazaritzako ustiatzietako inbertsioak, gazteei nekazari bihurtzen laguntzekoak

eta nekazaritzako produktuen eraldaketa eta salerosketak hobetzekoak.

Bestaldetik, Europako Batzordeak, 2000ko otsailaren 1ean, nekazaritza sektorerako Estatuko laguntzei buruzko Europako Batasuneko zuzentzarauak argitaratu ditu, besteak beste, nekazaritzako ustiatzietako inbertsiorako laguntzei, nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko sektoreko inbertsioari eta gazteak nekazari bihurtzeko laguntzei aplikatzekoak.

Arautegi berri hori Nafarroako Foru Komunitatean behar bezala aplikatu ahal izateko, nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testuategina, otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, arautegiko eskakizun eta betebeharrak egokitu behar da. Egokitze hori, gehienbat, Testuateginako II. Tituluari dagokio, horretan nekazaritzako egituren eragina hobetzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntza publikoaren orotariko arauak ezarri baitziren.

Manu aldatuei ematen zaien idazketa berriak ahalbidetzen du erantzun arinago bat agintaritzako publikoaren aldetik, neurriak finantzatzeko korritu tasak aldatzen direnean, eta posible egiten du laguntza mota batzuk aukeratzea, hala nola, kapitalerako itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak edo maileguren korrituendako sorospenak, unean unean agertzen diren inguruabarrak kontuan hartuta.

Azkenik, legearen aldaketak, halaber, nekazaritzako aseguruaren lerro berriak lehenago abian jartzeko aukera dakar. Horretarako behar diren administrazio jarduketak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organo egokienari esleitzen dizkie, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari, hain zuzen ere, kasuan kasuko foru aginduen bidez.

1. artikulua. Aldatu egiten dira otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategineko II. Tituluko 3., 4. eta 5. artikulua, nekazaritzako egituren eraginaren hobekuntzari buruzkoak.

“II. TITULUA

Nekazaritzako egituren eragina hobetzea

3. artikulua. Xedea.

Titulu honen barrenean sartuko dira:

a) Kontseiluak 1999ko maiatzaren 17an emaniko 1257/1999 (EE) Erregelamenduan Europako Nekazaritzaren Orientabide eta Bermearen (FEO-GAren) kontu herriak garatzeko laguntzei buruz aipatzen direnak, haien helburu baldin bada:

– Nafarroako abeltzaintzako inbertsioak sustatzea.

– Gazteei lehenbizikoz nekazari bihurtzen laguntzea.

– Nekazaritzako produktuen eraldaketa eta salerosketa hobetzea.

b) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontu finantzaturiko laguntza nazionalak, haien helburua nekazaritzako egituren eragina hobetzea bada.

c) Inbertsioak, haien helburua baldin bada:

– Osasun ekinaldien bidez hil diren behiak ordeztzea.

– Kooperatibek eta eraldaketarako nekazari elkarteek makinak erostea, makina horiek bazkideek batera eta zuzenean erabiltzekoak badira.

4. artikulua. Onurak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erregelamendu bidez ezartzen diren onurak ematen ahalko ditu, kapitalerako dirulaguntzak izan daitezkeenak edo haien baliokidea korrituen hobarietan, edo bien konbinazioa, maiatzaren 17ko 1257/1999 (EE) Erregelamenduan edo, hala bada, nekazaritzako sektorerako Estatuko laguntzei buruzko Europako Batasuneko zuzentaraue-tan ezarritako gehieneko mugak errespetatuz.

2. Ondoriozko mailegu edo kredituei, hobaria aplikatutakoan, gutxienez ere 100eko 1,5eko korritu tasa ezarriko zaie. Gehienez ere, mailegu edo kredituen korrituen ehuneko 8 finantzatuko

da. Maileguek gehienez ere hamabost urteko epea izanen dute.

5. artikulua. Onuradunak.

1. Nafarroako nekazaritzako ustiategietako inbertsioak sustatzeko eta gazteei lehenbizikoz nekazari bihurtzeko laguntzen onuradun izan daitezke:

a) Pertsona fisikoak, nagusiki nekazariak badira eta maiatzaren 17ko Kontseiluaren 1257/1999 (EE) Erregelamenduan xedaturikoaren arabera erregelamenduz ezartzen diren beste betebeharrak betetzen badituzte.

b) Pertsona juridikoak, haien helburu bakarra nekazaritza bada eta, gutxienez ere, haien bazkideen 100eko 50 nagusiki nekazariak badira. Hala-ber, kapital sozialaren 100eko 50ek eta elkartearen organo erabakigarrietako ordezkari gehienak nagusiki nekazariak direnen eskuetan izan behar-ko dute.

2. Nekazaritzako produktuen eraldaketa eta salerosketa hobetzeko laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisikoak eta juridikoak, baldin eta zama finantzarioa haiei badoakie eta dirulaguntzaren xede diren inbertsio eta gastuen azkeneko erantzuleak badira, enpresen bideragarritasun ekonomikoa frogatuz gero, eta ingurumen, higie-ne eta abereen ongizateari buruzko gutxiene-ko arauak betez gero.

3. Osasun ekinaldiaren ondorioz hil diren behiak ordeztzeko inbertsioetarako laguntzak eskatzen ahalko dituzte erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten abeltzainek.

4. Makinak erosteko laguntzak eskatzen ahalko dituzte erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak betetzen dituzten kooperatiba eta eraldaketarako nekazari elkarteek.”

2. artikulua. Hemendik aurrera ulertuko da otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Testu Bategineko 18, 19 eta 23 artikuluetan eta 25. artikuluko 2. idatz-zatian Nafarroako Gobernuaz egiten diren aipuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari dagozkiola.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikulua xedatzen du Nafarroako Gobernuak, hartarako Foru Lege bat eginik, Inbertsio Planak finkatuko dituela toki entitateekin lankidetzan ekonomikoan aritzeko tresnatzat, eta plan horien helburu nagusia izanen dela nahitaetzko udal zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitate osoan egon daitezen bermatzea.

Orobat, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua 4. idatz-zatian ezartzen du –Inbertsio Plana finkatzeko Foru Legea oinarri eta onetsiko diren batzordeekin bat– finkatu behar dela nola partitu Toki Entitateek Nafarroako Zergetan Parte Hartzeko Funtzari dagozkion kapital transferentzietarako aurreikusi den diru kopurua.

Foru Lege honen helburua da aipatu legeok Nafarroako Gobernuak jarduteko eskatzen duten arau-saila sortzea, Nafarroako Gobernuari baitagokio Planaren lerro nagusiak eratzea eta bai haren programazio eta plangintza lerroak ere, Toki Araubideko Foru Batzordearen iritzia aurrez entzunik.

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planak, Nafarroako Foru Komunitateak lehendik probatutako esperientziak oinarri harturik, honako osagaiak ditu: plan zuzendariak, toki programazio lanak eta toki garapeneak.

Plan zuzendariak, Toki Administrazioen arlo hauetako jokaeraren koherentzia bermatu beharrik sortzen dira: ur hornidura, ibaien saneamendua eta hondakin uren araztea eta hiri hondakinak nahiz hondakin berariazkoak bildu eta tratatzea; gai horiek, izan ere, nahitaetzko dute

eskumenak koordinatzea, toki entitateen interesak haratagokoak baitira eta Foru Komunitateko Administrazioak lurraldearen antolamenduko eta ingurugiroko gaietan dituen eskumenekin jotzen baitute.

Foru Lege honek esku ematen dio Nafarroako Gobernuari Toki Administrazioak arestian aipatu gaietan duen jokaera koordinatzeko, toki entitateek, obra planifikatuetan nola toki programazioetan, aukera izan dezaten beren eskumenpeko zerbitzu eta jarduerak plan zuzendarietako aurreikuspenen barruan planifikatu eta antolatzeko ahalmena erabiltzeko.

Lege honen bidez zehaztu egiten da zer diru kopuru zor diren 2001-2003 hiru urtetarako kapital transferentzia gisa, zer prozedura eta irizpide izanen diren inbertsioak hautatzeko eta zer araubide ekonomiko eta finantzarioa izanen duten.

1. artikulua. Hiru urtetarako Plana.

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako Planaren osagai dira 2001-2003 bitarteko hiru ekitaldietan zenbat ere obra eginen diren Nafarroako udalen eta kontzejuen eskumenpeko zerbitzuei dagozkien azpiegiturretan, Foru Lege honetan aipatzen diren programazioari, araubide ekonomiko finantzarioari eta kudeaketa erregimenari buruzko baldintzen arabera.

2. Toki azpiegituren hiru urtetarako planak honakoetan aurreikusten diren inbertsioak ditu osagai: a) Plan Zuzendariak, b) Toki Programazioa eta c) Toki Garapena.

2. artikulua. Plan Zuzendariak.

1. Nafarroako toki entitateetan behar den koordinazioa segurtatzeko, komunitatearen intereseko, eta, beraz, udalez gaidiko intereseko deklaraten dira entitate horien eginkizun eta jarduera hauek:

a) Goi presioko uraren hornidurak, plan zuzendariaren sartuak.

b) Ibaien saneamendua eta araztea.

c) Hiri hondakinak eta hondakin berariazkoak bildu eta tratatzea.

2. Nafarroako Gobernuak koordinatu egiten du toki entitateek gai horietan duten jokaera, kasurako plan zuzendariak sortuz. Plan horiek aginduzkoak izanen dira eta Foru Lege honetan aipatzen diren baldintza eta mugen arabera.

3. Goi-presioko ur hornidurarako plan zuzendarian honako alderdiak jorratzen dira: erabili beharreko baliabideak zein diren eta nola partitu behar diren, ura hartzeko eta erregulatzeko lanak, ur hodiak, ura tratatzeko edo potabilizatzeko lanak eta ur biltegiak. Plana garatzeko planek finkatuko dute, hala behartzen bada, zein ekintza eremutan bilduko diren udalak eta zein soluzio tekniko hartuko diren kasuan-kasuan.

4. Ibaiak araztu eta saneatzeko plan zuzendariak honakoak hartzen ditu aintzat: zein aterahodiren bidez gaur egun ur-ibilguetara isurtzen diren hiri hondakin-urak bildu eta araztegietara eramanez diren, eta bai araztegiak berak eta ondoren ur ibilguetara isurtzeko hodiak ere. Planak, bestalde, egin beharreko obrak zehaztu eta programatzen ditu.

5. Hiri hondakinentzako plan zuzendariak eta hondakinak kudeatzeko plan integratuak honakoak hartzen dituzte aintzat: materia organikoaren eta material inerteen tratamendua ebazteko behar diren baliabideak, materia organikoa eta paper/kartoia biltzea, puntu garbiak ezartzea, obra-hondakinak entregatzeko puntuak, hondakin-degiak ixtea eta behar diren baliabide osagarriak. Bi planek finkatzen dute zein ekintza eremutan bildu behar diren udalak eta zein konponbide tekniko hartu behar diren kasuan-kasuan.

3. artikulua. Toki programazioko inbertsioak.

1. Honako obra hauek dira toki azpiegituren hiru urtetarako planaren toki programazioko inbertsioen hartzaile: Foru Lege honetan ezarri diren hautapen irizpideak aplikaturik, Foru Lege honetan aurreikusten diren dirulaguntzak eman zaizkien eta bertan ezartzen den kudeaketa araubidea segitzen duten obra guztiak.

2. Honakoak dira toki programazioko inbertsioak: goi presioko ur hornidurari buruzko baina Plan Zuzendarian sartu gabekoak, ura banatzeko eta saneamendurako hiri sareak, elektrifikazioak, herri argiteria, zoladura, udal eraikinak, kanposantuak eta toki bideak.

3. Hauxe aditzen da ura banatzeko hiri sareak: erregulazio biltegiak eta etxeetako hartuneak eta hango kontrol eta neurtze aparatuak lotzen dituztenak; hauxe saneamendu sare lokalak: etxeko isurkinak eta hiri zoruan eroritako euri ura hartu-neetatik araztegi baina lehenagoko atera-hodi orokorreraino eramaten dituzten hodiak.

4. Elektrifikazioetan sartzeko dira argindarra garraiatu, eraldatu eta banatzeko instalazioak behar bezalako zerbitzurik edo batera zerbitzurik ez duten jendegune edo eremuetan, eta bai kasu-

ko erregelamendu eta jarraibideetako xedapen eta arauak betetzeko behar diren instalazio osagarriak.

5. Herri argiterian sartzeko dira hiri bide publikoak argitzeko instalazioak.

6. Zoladura obretan sartzeko da trazadura berriko hiri bideak zolatzeko, oraingo hiri bideetako zoladura hobetzea eta hiri lurzoru sendotuan eragina jasaten duten instalazioak lehengoratzeko.

7. Udal eraikinen kontzeptuan sartzeko dira oin berriko eraikinak eraikitzea eta oraingoak eraberritzeko lanak, udal nahiz kontzejuen administrazio egoitzak kokatzekoak, eta bai mankomunitateen eta nahitaezko zerbitzuetarako elkarteak eta eginkizun administratiboetan aritzeko eratzen diren elkarteak.

8. Kanposantu obretan sartzeko dira eraikuntza berriak nahiz zabaltze edo eraberritze obrak baldin zerrakurei, barne nahiz kanpoko urbanizazioari, azpiegiturei eta eraikin osagarriari eragiten badiete. Ez dute finantziatorik jasoko hil-zulo, panteoi, mausoleo eta errauste nahiz erretze instalazioetako obrek.

9. Hauxe aditzen da toki bideetako obrak: toki jendedunetara iristeko landabideak egin, zolatu, egokitu, hobetu eta zabaltzeko obrak, eta nahitaezko udal zerbitzuekin lotuta dauden toki dotazioak.

4. artikulua. Toki garapena.

Toki garapenean sartzeko dira toki entitateek, beren oldez, turismo eta produkzio sektoreak bultzatzeko behar diren ekipamendu eta azpiegituretan egin behar dituzten inbertsioak.

5. artikulua. Hiru urtetarako planaren finantza-bidea.

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako plana aporazio hauen bidez finantzatzeko da:

a) Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako Zergetan Parte Hartzeko Funtsa, Nafarroako aurrekontu orokorrean kapital transferentzia gisa jasoa.

b) Beste erakunde publiko nahiz pribatuaren aporazioak.

c) Toki entitateen baliabideak.

d) Kreditu eragiketak.

2. Beste erakunde publiko nahiz pribatuetatik heldu diren aporazioak bateratzen ahalko dira 1. idatz-zatian aipatzen diren beste aporazioekin.

Hala ere, aportazio horiekin inbertsioaren kostuko ehuneko ehun gaintzen bada, ehuneko ehun horrez goitiko zatian gutxituko da Nafarroako aurrekontu orokorretan oro har jasotzen diren aportazioetatik pagatu beharreko diru kopurua.

6. artikulua. Toki Entitateek Nafarroako Zergetan Parte Hartzeko Funtsatik pagatu beharreko aportazioak.

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako planarentzako aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferentziatzat jotzen direnak, urte bat baino gehiago hartzen dituztenak izanen dira, honela:

	Guztira			
	2001	2002	2003 (pezetak, milioitan)	
A) Plan zuzendariak				
Azterlanak	10	10	10	30
Goi presioko ur hornidura	1.166	1.166	1.166	3.498
Ibaiek araztu eta saneatzea	700	700	700	2.100
Hiri hondakinak:				
- Tratamendua	125	125	460,8	710,8
- Bilketa	185	185	139,5	509,5
- Iruñerriko Mk. arekiko hitzarmena	-	224,1	-	224,1
Berariazko hondakinak	-	-	300,6	300,6
Milioiak, guztira				
Plan Zuzendarietan.	2.186	2.410,1	2.776,9	7.373
B) Toki programazioko inbertsioak				
Goi presioko ur hornidura				
Plan Zuzendarietan sartu gabekoa	15	15	15	45
Ur hornidurako eta saneamenduko sare lokalak.				
	1.300	1.300	1.300	3.900
Elektrifikazioak	25	25	25	75
Herri argiteria	225	225	225	675
Zoladurak	875	875	875	2.625
Udal Eraikinetan	200	200	200	600
Kanposantua	100	100	100	300
Toki bideak	100	100	100	300
Milioiak, guztira				
Toki programazioan	2.840	2.840	2.840	8.520
C) Toki garapena				
Toki garapena	40	40	40	120
GUZTIRA.....	5.066	5.290,1	5.656,9	16.013

2. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du gehienez ehuneko hamar bat erreserbatzea Hiru urteko planarentzako aportazioetatik, ezinbesteko ekintzei edo ezin igarritzko gorabeheri, salbuespenezko araubidearen finantzazioari edo Europako diru bakarra ezartzeak sortzen dituen gorabeheri aurre egiteko.

3. Europako Batasunak emendiozko finantzaketa ematen duen kasuetan, plan osagarri bat ere

eratuko da, finkatzeko zein azpiegitura inbertsio, Foru Lege honek aipatzen dituenetatik, gai diren Batasuneko fondoak eskatzeko.

Plan osagarri horretan sartzen diren inbertsioek bete behariko dituzte Europako araudiak honako gainean jartzen dituen baldintzak: finantzaketa jasotzeko gai diren eremuak, dokumentazioa tramitatzeko epeak, aportazioaren portzentajea, pagamenduen egutegia eta zein ere alderdik kontra eginen baitio hiru urtetarako planaren araudia-ri.

Toki programazioko obretarako, Europako Batasunaren fondo aportazioa Foru Lege honetako irizpideen arabera tokatzen den finantzaketa ehunekoraino osatzeko, hasiera batez hiru urtetarako planerako aportazioen ehuneko bat erreserbatzen da, eta zilegi izanen da, behin benetako premiak ezagutuz gero, ehuneko hori zabaltzea edo planaren oro harko aportazioen mesedetan itzultzea.

Toki programazioko obrak, Foru Lege honetako 8. artikuluan ezartzen denaren arabera izandako kalifikazioei jarraikiz lehenetsiko dira.

4. Hiru urtetarako planarentzako aportazioen banaketa, artikuluko honetako 1. idatz-zatian jaso den bezalakoa, ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorren programan agertuko da jasorik.

Zilegi izanen da Europako Batasunaren emendiozko laguntza jasotzen duten partidak handitzea.

5. Nafarroako Gobernuak, toki entitateek planean hautatu eta lehenetsi diren obrak gauzatzeko ezartzen duten lehentasunaren arabera, zilegi izanen du gehienez ehuneko hamar zabaldu ala gutxitzea hiru urtekoaren ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako diren kopuruak. Hartara, moldatu egin behariko ditu ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan jasota dauden kopuruak, Nafarroako aurrekontu orokorretan hiru urtetarako planari egotzitako kopurua, guztira, berbera izateko moduan.

6. Kapital transferentziak egiteko funtsaren baliabideak ekitaldi ekonomiko batean erabiltzen ez direnean hurrengoari erantsiko zaizkio ekitaldi horretan aplikatzeko.

Kreditu erantsiak ez badira aplikatzen eranste horri baimena eman zaion ekitaldian, hurrengo ekitaldiko aurrekontuen gastu egoerari erantsiko zaizkio, ekitaldi horretan aplikatzeko.

Emaitzen kontuetan aurrezki izaten bada, aurreko ekitaldietako obretan izandako gastu-soberakinak finantzatzeko erabiliko dira. Hala ere,

aurrezki horien osotarako kopurua 150 milioi pezeta baino gehiagokoa bada, zilegi izanen da horrekin obra berriak finantzatzea, leheneste irizpide berberekin eta 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planean izandako kalifikazioen hurrenkera begiratzuz.

Fondo horretako dirusailen artean eta aurrekontuaren ekitaldian zilegi izanen da aurrekontuak programaren helburuak iristeko behar den bezala moldatzea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1989 Foru Legearen 39. artikuluko 3. idatz-zatiak ezartzen duenarekin bat.

7. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari 2001-2003 hiru urtekoaren ekitaldi bakoitzean, haratago joan gabe, hurrengo ekitaldiaren ehuneko 50 eta hurrengoaren ehuneko 25 konprometitzea.

7. artikulua. Obrak sartzeko baldintzak.

Azpiegitura obrak hiru urtetarako planean sartuko badira, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Hasi eta burutu gabeko obrak izanen dira, salbu eta Foru Komunitateko Administrazioak espreski hasteko baimena eman dienak.

b) Kasuko herriaren hirigintza planeamenduen arabera obrak izanen dira.

c) Toki entitateen eskumen alorraren barneko obrak izanen dira edo erakunde eskudunak delegatuta bere gain hartutakoak. Kontzejuen kasuan, gainera, zilegi izanen da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legeko 39. artikulua 2. zenbakian xedatzen denaren ondorioz bere gain hartutako obrak sartzeari.

8. artikulua. Toki programazioko eta toki garapenerako obrak hautatu eta lehenesteko prozedura.

1. Toki entitateek programatu beharreko azpiegitura obrak hiru urtetarako planean sartzeko, hautatze eta leheneste formula hau ezarriko da:

$$HLK = 0,77 ADI + 0,10 ADO + 0,065 IE + 0,065 KTB$$

Honela irakurririk:

HLK: Hautatze eta Leheneste Koefizientea

ADI: kasuko toki entitateak hiru urtetarako planen sartu beharreko obrari dagokionez duen Azpiegitura Defizit Indibidualaren adierazlea da, eite bereko beste azpiegituren aldean.

ADO: Toki entitateak duen Azpiegitura Defizit Orokorra adierazten du, hiru urtetarako planak aurreikusten dituen beste azpiegituren aldean

(toki bideak eta kanposantuak kenduta) zenbakarria dena.

IE: Inbertsioaren Errentagarritasuna biztanleko.

KTB: Kapital Transferentzien Bolumena, Toki Administrazioiko Departamentuak 1984-2000 aldian aitortu dituenak.

2. Aurreko zenbakian definitu diren koefiziente guztiek 0tik 10erako balioak izanen dituzte. ADI koefizientea aldagai diskreto da, zeinaren balioak 1, 4, 7 eta 10 izanen baitira defizit tamainaren arabera.

3. Toki garapenerako obrak hautatu eta lehenesteko, honako formula erabiliko da:

$$HLK = PST + LP + LT$$

Honela irakurririk:

HLK Hautatze eta Leheneste Koefizientea

PST Produkzio Sektorearen Titulartasuna

LP Sortu edo mantendu beharreko Lanpostuak

LT Langabezia Tasa

4. Aurreko idatz-zatietan definitu diren koefizienteak kalkulatzeko prozedura erregelamendu bidez finkatuko da.

9. artikulua. Inbertsioen araubide ekonomiko finantzarioa

1. Toki azpiegituren hiru urtetarako plana finantzatzeko aportazioen araubidea honako hau izanen da:

a) Plan zuzendariak:

– Goi presioko uraren hornidura: ehuneko 90

– Ibaiak araztu eta saneatzea: ehuneko 80

– Hiri hondakinak:

. Bilketa: ehuneko 70

. Tratamendua: ehuneko 90

b) Toki entitateek programatutako azpiegitura lanak:

– Goi presioko ur hornidura, plan zuzendarie-tan sartu gabekoa: ehuneko 80-100

– Hornidura sare lokalak: ehuneko 60-80

– Herri argiteria: ehuneko 60-80

– Zoladura: ehuneko 60-80

– Elektrifikazioak: ehuneko 60-80

– Udal eraikinak: ehuneko 60-80

– Kanposantuak: ehuneko 60-80

– Toki bideak: ehuneko 60-80

c) Toki garapena:

– Toki garapena: ehuneko 40-60

2. Aportazioaren ehunekoak beti aurreko idatz-zatian finkatu diren mugen barrinean egonen dira.

3. Ehuneko horiek graduatzeko, udal eta kontzejuen toki programazioko eta toki garapeneko obra bakoitzerako, honako formula erabiliko da:

$$P = \% 40, \%60, \%80 + \% 11 \times \text{EEK} + \%9 \times \text{AF}$$

Honela irakurririk:

E: aportazioaren ehunekoa.

40, 60, 80 da azpiegitura bakoitzeko gutxieneko ehunekoa.

EEK: Egoera Ekonomiko-finantzarioaren Koefizientea da. Toki entitate bakoitzerako kalkulatu da, Zorduntze Teorikoaren Maila (ZTM) eta Zorduntze Mugaren (ZM) arteko emaitza erabiliz.

AF: Ahalegin Fiskalaren koefizientea da. Toki entitate bakoitzerako kalkulatu da, honela: ordainarazketa horrek (legezko tasa handienak erabiliz) ekarriko lukeen diru sarrerari dagokion lurralde kontribuzioagatik likidatu diren eskubideen eta hiri ondasunen kasuan Merkatu Balioaren estimazioen arteko emaitza harturik.

4. EEK koefizienteak 0-1 bitarteko balio bat hartuko du eta AF-ek berriz 0,7-1 bitartekoa. Bi koefizienteak kalkulatzeko, 1999ko aurrekontuak likidatzeko espedienteak hartuko dira oinarri, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 227.2 artikulua agintzen duenez.

Erregelamenduek ezarriko dute koefiziente horiek nola kalkulatu.

5. Mankomunitateen kasuan, aportazioen ehunekoa (P) kalkulatzeko formula honako hau izanen da:

$$E = \% 40, \% 60 + \% 20 \times \text{EEK}$$

EEK definitu eta kalkulatzeko, artikuluko honetako 3 eta 4. idatz-zatiak hartuko dira aintzat.

Hala ere, aportazioaren ehunekoak (E), Foru Lege honetako 9. artikuluko 1. idatz-zatian ezarri diren banden batez bestekotik gorako balioa izanen du beti.

6. Aportazioaren ehunekoa (E) behin betikoa izanen da, EEK eta AF horiek aldaezinak izanen

baitira toki entitate bakoitzerako hiru urtetarako plana garatzen den denboran.

7. Salbuespenez zilegi izanen da artikuluko honetako 3. idatz-zatiko formularen arabera kalkulatu den aportazio ehunekoa handitzea plan zuzendariei eta toki programazioari dagozkien obretako oinarri lagungarriaren ehuneko 100 iristeraino, baldin eta kasuko toki entitatearen gaitasun ekonomikoa aztertutik ezinezkoa izan bada eta entitate horrek araubide horretan sartzea eskatu badu.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko du zein irizpideren arabera gobernatuko den eta araubidean sartuko diren toki entitateen zerrenda argitaratuko.

8. Erregelamendu bidez ezarriko ere dira zenbat neurri behar diren toki entitateei plan zuzendarien osagarriko finantzaziorako tokatzen zaien aportazioak jasotzeko, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean edo hark subrogatuta bururatzen direnean.

10. artikulua. Prozedura

A) Plan zuzendariak

1. Plan zuzendarietan sartutako obrak kasuko zerbitzua ematen den toki entitateek egin beharko dituzte, non eta elkarlanean edo subrogatuta egiten ez diren. Horrek ez ditu ezertan galarazten kasu hauetan toki entitateei tokatzen zaien finantzazio obligazioak.

2. Toki entitate bati plan zuzendarietako aginduek inbertsioak egiteko edo zerbitzuak ustiatzeko eginkizunak sortzen badizkiote, entitate horrek zilegi izanen du eginkizun horietarako Nafarroako Gobernuaren lankidetzak eskatzea.

3. Plan zuzendariak eginkizunak egotzi dizkieten toki entitateei aurreikuspenak bururatu ezina sortzen bazaie edo berek beren oldez ez badituzte betetzen, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du eginkizun horiek subrogazioz bere gain hartzea. Subrogaziozko egintza horretarako aurrez Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena beharko da.

B) Toki programazioko eta toki garapenerako inbertsioak

1. Toki entitateek Foru Komunitateko Administrazioari beren azpiegitura beharren gainean eskaera egin diotelarik, Administrazioak Foru Lege honetan ezarri diren hautatze eta leheneste irizpideak aplikatuko ditu eta argitaratuko du obra horiek eta haien HLK hiru urtetarako planean hasiera batez sartzea.

2. Kasuko toki entitateek sarrera hori berretsi beharko dute eta obrak bururatzeko plan finantzarioa aurkeztuko. Bi mila biztanletik gorako toki entitateek, horrez gain, beren osotarako inbertsioen hiru urtetarako plan bat ere aurkeztu beharko dute, bertan sarturik Foru Lege honetan aurreikusten diren diru aportaziorik hartzen ez dutenak, eta horrekin batera haien osotarako plan finantzarioa ere bai.

3. Aipatu dokumentazio hori ikusirik, Nafarroako Gobernuako organo eskudunak aztertuko du toki entitateek behar adinako gaitasun finantzarioa duten inbertsio horiek egiteko. Ezinbesteko baldintza izanen da entitate horien bideragarritasun ekonomikoa planeko obrak behin-behinekoz sartzeko, hala tokatzen bada.

4. Bideragarritasunik atzeman ez zaien toki entitateen kasuan, epe bat irekiko da toki entitate horiek beren gaitasun finantzarioa molda dezaten planean sartu beharreko inbertsioa edo finantzazio bide alternatibo bat aurkeztu, dela emendiozko baliabideak hartara jarriaz edo salbuespeneko araubidean sartzeari eskatuz.

5. Erregelamendu bidez ezarriko da zer baldintza bete beharko diren epeari, dokumentazioari, proiektuen aurkezpenari eta hiru urtetarako plana behin betikoz sartu eta bururatzeko beste baldintzei dagokionez. Finkatuko ere da zer kasutan eta zer prozeduraren bidez gertatuko den hiru urtetarako planaren eskubide ekonomikoa galtzea.

11. artikulua. Planaren kudeaketa.

1. Toki entitateei dagokie plan zuzendarietan aurreikusten diren obrak kudeatu eta zerbitzuak ustiatzea, eta bai toki programazioari eta toki garapenari dagozkionak ere, ezertan galarazi gabe Nafarroako Gobernuak behar den jarraipena eta kontrola egitea plana egoki aplikatu dadin.

2. Foru Lege honetan aipatzen diren lankidetzaren edo subrogazio kasuetan, obrak kudeatzea eta zerbitzuak ustiatzea Nafarroako Gobernuari dagokio.

12. artikulua. Toki entitateen parte-hartzea.

1. Nafarroako toki entitateek parte hartuko dute toki azpiegituren hiru urtetarako planari jarraipena eta kontrol egiten Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez.

2. Batzorde horri dagokio aurretiaz nahitaezko txostena egitea plan zuzendariei egiten zaizkien aldaketa eta gaurkotzeen gainean eta bai organo eskudunek aplikazioari buruzko zer ere arazo planteatzen dizkieten, haien guztien gainean ere.

13. artikulua. Urteko balantzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari igorri beharko dio, urtero, aurreko ekitaldian toki azpiegituren hiru urtetarako plana garatzearen eta bururatzearen gaineko txostena.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Toki programazioko eta toki garapenerako obrak hautatu eta lehenesteko, toki azpiegituren hiru urtetarako planean sartu baino lehen, foru lege honetan ageri diren formula polinomioak aplikatuko zaizkie entitate interesatuek 2000. urtean deitutako inkesta publikoan egiten dituzten eskaerei.

Bigarrena. Toki azpiegituren hiru urtetarako planaren diru fondoak hobekienik banatzeko, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du planean partzialki obrak sartzeari, beti ere baldin eta hainbat alditan egiteko modukoak badira.

Hirugarrena. Zilegi izanen da behin-behinekoz planean sartu diren toki programazioko eta toki garapenerako obraren zenbatekoa gehienez ehuneko hamar gehitzea hiru urtetarako planean behin betikoz sartzeari momentuan.

Laugarrena.

1. Foru Lege honek agintzen duenaren arabera kalkulaturako aportazio ehunekoak, 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren bizkarko finantzazioa kalkulatzeko, inbertsio osoari (BEZa barne) aplikatuko zaio baldin obra horietan delako toki entitatea azken buruzko kontsumitzaile bada, hau da, jasandako BEZa kenkari ez denean.

2. BEZaren peko inbertsio eta obretan, jasandako BEZaren kenketa egiteko eskubidea sortzen duetenetan, delako aportazio ehunekoak zerga oinarriaren gainean egiten da (BEZik gabe).

Bigarren kasu horretan, zilegi izanen da soluzio partzialen paguetan, obra bururatuaren ziurtagiriei dagozkienetan, aurrerakin gisa sartzeari haie-tako bakoitzaren BEZa bider finkatu den aportazio ehunekoak. Ziurtagiri horiekin batera kasuko fakturak ere aurkeztu beharko dira beti.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau garatzeko erregelamenduetan, soluzioei dagokien eta osotarako aportazioa ordaintzen den partean, kontuan hartu beharko du aipatu BEZaren aurrerakin horiek ondoren erregulartzeko.

3. Toki entitate batek ekitaldiko BEZaren deklarazioetan bere aldeko saldoa agertzen badu, kopuru hori jasoko dute Nafarroako Zerga Ogasunetik, zeinak behar den likidazioa egiten duen hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoari dagokion

deklarazioa aurkezteko epea bukatu baino lehen, nahiz eta ekitaldi horretako hiruhileko deklarazioetako batean saldoa Nafarroako Zerga Ogasunaren aldekoa izan.

Bosgarrena. Inflazioak eragindako desbideraketak arintzeko Kapital Transferentzien Funtseko aportazioa ehuneko 1 handituko da espedientea tramitatzeko hasten denetik obraren exkuzioa arte.

Seigarrena. Hiru urtetarako egungo planean bete gabe dauden ADO 10 edo 7 eskaerei aurre egitearren 3.000 milioitan gehitzea funtsa.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak, eta gure kasuan Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoak ere, herritarrei aitortzen dizkien eskubideak eta libertateak defendatzeko hainbat instituzio publiko daude gure antolamendu juridikoan; horien artean, arartekoa.

Konstituzioak horretarako aukera ematen duenez, Espainiako autonomia erkidego ugarik sortu dute instituzio hori, autonomia erkidegoaren administrazioaren jarduerara, toki administrazioarena, eta horien ente eta enpresa publiko zein menpekoena behatzeko; halaber, 1978ko Konstituzioko lehen tituluan ezarritako eskubideak hobeki babesteko ere sortu dute instituzio hori.

Nafarroako Foru Komunitateak badu eskumenik instituzio hori –arartekoa, alegia– sortzeko eta arautzeko, Konstituzioa buru duen egungo antolamendu juridikoak, eta bereziki, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49-1. artikulua, gure Karta Magnaren 148.1, 1. artikuluaekin bat, horrela aitortzen baitio. Instituzio horrek harreman zuzena izanen du Nafarroako Parlamentuarekin; eginkizun propioak edukiko ditu eta koordinatu egingen ditu Gorte Nagusiek izendatutako arartekoak dauzkan eginkizunekin, horrela ezartzen baitu apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren 12. artikulua.

Gainera, Auzitegi Konstituzionalak argi utzi du jurisprudentziaren aldetik, autogobernurako erakundeak arautzeko ahalmenak horiek sortu ahal izatea ere barneratzen duela, estatutuaren arautan halakorik berariaz jasoko ez balitz ere (gure kasuan, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan).

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak behatu egingen du Nafarroako Foru Komunitatearen jarduerara, toki administrazioarena eta baita horien eragileena ere; beraz, arartekoak, bere kabuz edo norbaitek hala eskaturik, administrazio publikoen egintza edo ebazpenak argitzea helburu duen edozein ikerketa hasi eta horrekin jarraitu ahal du. Berezko pertsonak nahiz pertsona juridikoen, inongo mugarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarengana jo ahal du eta parte har dezala eskatu egintza, ebazpen eta jokabide jakin batzuk argitzen, horiek pertsona bat edo pertsona talde bat kaltetu dutenean eta Nafarroako Foru edo Toki administrazioan eman direnean.

Figura hau herritarrengandik gertu dagoen erakunde da, doanekoa, arina, eta kontrol-prozeduraren malgutasuna, ikerketa-metodoak eta arazoak ebazteko sistemak ditu ezaugarri nagusi.

Azken batean, legezkotasun printzipioak eta administrazio jarduketara arautzen dutenak aplikatuz, arartekoa Administrazioa iristen ez den alorre-ara irits daiteke, herritarren mesederako, eta bereziki, babesgabeenen alde.

I. TITULUA Estatutua

1. kapitulua Izaera eta hautatzea

1. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege

Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko hautatuko du Nafarroako Parlamentuak. Herritarrak Administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean babestea izango du eginkizun nagusi.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak Foru lege honek ezarritako eginkizunak beteko ditu; eginkizun horiek Gorte Nagusiek izendatutako arartekoarekin koordinatuko ditu, legeria orokorrari jarraituz, eta lagundu egingen du ararteko hura, hark hala eskatuz gero; halaber, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak laguntza eskatuko ahalko dio Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari.

3. Horretarako, eta foru lege honek ezartzen dizkion eginkizunak betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ondoko hauen administrazio jarduera ikuskatu ahalko du: Foru Komunitateko Administrazioarena, Nafarroako Parlamentuko organoena eta Parlamentuak berak sortutako erakundeetako organoena; Nafarroako toki administrazioarena, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroari eskumenak aitortzen dizkion gaiei dagokien orotan; eta halaber nortasun juridikoa duten haren ente eta enpresa publiko zein menpekoena begiratuko du.

Halaber, administrazio kontzesio bidez pertsona fisiko edo juridikoak kudeatutako zerbitzuak ere begiratu ahalko ditu eta, oro har, edozein erakunde edo entitate, pertsona juridiko edo pribatu, baldin eta zerbitzu publiko batean diharduela, nolabaiteko administrazio kontrol edo tutoretza egiten badiote, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroako Foru Komunitateari eskumenak ematen dizkion gai orotan.

2. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatuko du; sei urterako, hain zuzen. Arartekoak Parlamentura jotzen badu, Parlamentuko Lehendakariaren bidez egingen du.

2. Foru Araubide Batzordea arduratuko da –Parlamentuko Erregelamenduaren 58. artikulua arautzen du batzorde hori– Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarekin harremanak izateaz, eta, halaber, batzorde horren ardura izanen da Osoko Bilkurari behar diren guztiak jakinaraztea.

3. Arestian aipatutako batzordeak, bere kideen hiru bostenen aldeko botoarekin, Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izateko hautagaia proposatuko dio Biltzarraren Osoko Bilkurari.

4. Hautagaia edo hautagaiak proposatu, eta Osoko Bilkura deituko da hamabost egunen buruan, gutxienez, bil dadin eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa hauta dezan. Parlamentarioen botoen hiru bostenen gehiengoa nork lortu, hura izendatuko dute Nafarroako Foru Komunitateko ararteko.

5. Adierazi den gehiengo hori lortzen ez bada, batzordea berriz bilduko da, gehienez ere hilabete epean, proposamen berriak egiteko.

6. Artikulu honetako 4. idatz-zatian lortutako gehiengoa lortuz gero, hautagaia Nafarroako Foru Komunitateko ararteko izendatuko da.

3. artikulua. Eskubide zibil eta politiko osoak dituen edozein pertsona hautatu ahalko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa izateko, eta, betiere, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5. artikulua- ren arabera nafartasun politikoa badu.

4. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak bere sinaduraren bidez Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren izendatzea egiaztatuko du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak Parlamentuko Mahaiaren aurrean hartuko du karguaren jabetza, eta, ekitaldi horretan, Nafarroako foru eraentza errespetatu, Espainiako Konstituzioari eta legeei men egin eta kargua zintzo beteko duela zin egin edo hitz emanen du.

2. kapitulua

Abantailak eta bateraezintasunak

5. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa ez zaio inongo aginduri lotuko; ez du inongo agintariren jarraibiderik jasoko; eginkizunak autonomiaz beteko ditu eta bere irizpide propioei jarraituz.

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ukiezintasun eta inmunitatearen berme-sistema izanen du, eta baita, indarrean dagoen legegintzaldian, orokorrean, arartekoaren antzeko erakunde autonomikoetarako ezarritako babes berezia, eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak Nafarroako Gorteetako kideentzat zehazki ezarritakoak ere izanen ditu.

7. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa izatea hurrengo hauekin bateraezina da:

a) Herri-hautatze bidezko edozein ordezkari-tza.

- b) Izendatze libreko edozein kargu politiko.
- c) Alderdi politiko bateko kide izatea, edota sindikatu edo enpresario elkarte batekoa.
- d) Elkarte edo fundazioren batean zuzendari-tza eginkizunak izatea.
- e) Edozein administrazio publikotan zerbitzu aktiboan jardutea.
- f) Epaile edo fiskal karreran jardutea.
- g) Edozein lanbide, jarduera liberal, merkataritza-jarduera edo lan jardueratan aritzea.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ezin izanen du inongo propaganda politikorik egin.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, baterazintasunik badu, izendatu eta hurrengo hamar egunetan utziko du bateraezintasuna sorrarazten dion kargua, eta, betiere, karguaren jabetza hartu baino lehen utzi beharko du; hala egiten ez badu, izendatzea ez duela onartzen uste izanen da.

4. Bateraezintasuna karguaz jabetu ondoren sortzen bada, bateraezintasun hori gertatutakoan karguari uko egin diola uste izanen da.

5. Foru Araubide Batzordeak izanen du esku-mena, batzordearen botoen hiru bostenen gehien-goarekin, –Parlamentuko Erregelamenduaren 58. artikulua arautzen du batzorde hori– Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarekin zerikusia izan dezaketen bateraezintasun egoerei buruzko eztabaida edo zalantza oro argitzeko. Batzorde horrek Parlamentuko Osoko Bilkurari aurkeztuko dio txostena.

3. kapitulua

Kargu uztea eta ordezkatzea

8. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hurrengo arrazoi hauetakoren bat dela medio utziko du kargua:

- a) Uko egitea. Horren berri berriaz eman beharko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.
- b) Ezarritako epea amaitzea.
- c) Heriotza, edo ezintasuna sortzea karguaz jabetu ondoren.
- d) Nafarroako Parlamentuak kargutik kentzea, karguan arduragabekeria nabarmenez jarduteagatik.
- e) Dolozko delitua dela eta epai irmoz kondenatua izatea.
- f) Bateraezintasuna sortzea, karguaz jabetu ondoren.

g) Nafartasun politikoa edo eskubide zibil eta politikoa galtzea.

2. Arartekoaren heriotza, uko egitea, edo kargualdia amaitzea gertatzen denean, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak kargua hutsik dagoela deklaratu du. Gainerako kasuetan, parlamentarien hiru bostenen gehiengoak erabakiko du zer egin, eztabaidatu eta interesatuari entzun ondoren.

3. Kargua hutsik delarik, Nafarroako Foru Komunitateko ararteko berri bat izendatzeko prozedura hasiko da; prozedura hori hilabete baino lehen abiarazi beharko da.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren kargu uztea gertatu, edota hark behin-behineko ezintasuna izanen balu, eta Nafarroako Gorteek beste bat izendatu bitartean, behin-behineko, arartekoaren ondokoak beteko ditu haren eginkizunak.

4. kapitulua

arartekoaren ondokoak

9. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ondoko bat izan ahalko du. Arartekoak aldi batez eginkizunak betetzerik ez duenean, edota kargua uzten duenean, eginkizunak ondokoari eskuordetu eta horrek ordezkatu du.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak izendatu eta kenduko du kargutik ondokoak; betiere, 2.3 artikulua 2. lerrokadan aurreikusitakoari jarraituz eta Foru Araubide Batzordeak onespene eman ondotik.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ondokoaren izendatzea eta kargu uztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

4. Nafarroako arartekoaren ondokoari foru lege honetako 3, 6, 7 eta 8. artikuluetan Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarentzat xedatutakoa, azken hau behar denean, aplikatu zaio.

5. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ezin izanen dizkio ondokoari inola ere eskuordetu zenbait eginkizun: Parlamentuaren, Gobernuaren edo kontseilarekin harremana, edo horien jardura administratibo hutsaren aurka jardutea.

10. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ondokoak kargua utziko du Parlamentuak izendatutako Nafarroako Foru Komunitateko ararteko berria karguaz jabetzearekin bat.

2. Foru Lege honetako 8.4 artikuluan aipatutakoa gertatzen bada, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren bulegoko aholkulariek beren eginkizunetan jarraituko dute; behin-behineko

hutsunea betetzen duen arartekoaren ondokoak ezin izanen ditu aholkulariak kargutik kendu, Bilzarreko Foru Araubide Batzordearen onespenez izan gabe.

II. TITULUA

Eginkizunak eta prozedura

1. kapitulua

Eskumenen esparrua

11. artikulua. 1.3 artikuluan aipatzen diren administrazio publiko eta entitateen jardura begiratzen ahal du Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak; betiere, foru lege honek ezarritako eskumenen esparruan. Apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren 12. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak Gorte Nagusiek izendatutako arartekoarekin koordinatuko ditu bere eginkizunak, eta, beharrezko denetan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak laguntza emanen dio Gorte Nagusiek izendatutakoari.

12. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, halaber, bere eginkizunak direla eta, Estatuko arartekoarengana jotzen ahalko du, edota beste autonomia erkidego batzuetako ararteko edo antzeko instituzioengana; horrela, Nafarroako lurralde-esparruaren gaindiko jarduketak koordinatu ahalko dira.

13. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, baldin eta Justizia Administrazioak Foru Komunitatean duen funtzionamenduari buruzko keak jasotzen baditu, fiskaltzari edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari zuzenduko dizkio; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen Nafarroako Parlamentuan aurkeztu beharreko txostenean espreski aipatzeko.

2. Nolanahi ere, hori egin aurretik, kexa horiek igorri ahal izanen ditu ukitutako organo judizialera, Nafarroako Entzutegira edo Nafarroako Auzitegi Nagusira.

14. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, bere jarduna dela-eta, foru lege honetako 1.3 artikuluan aipatzen diren administrazio publikoetako edozein agintari, eragile edo langileri erantzukizuna eskatu behar zaiola irizten badio, erantzukizun-akzioari ekinen dio bere kabuz, edo organo edo instituzio eskudunera joko du, azken honek dagokion erantzukizuna eska dezan.

2. Babes errekurtsua edo konstituzio kontraktasun errekurtsua jarri behar bada, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak Espainiako ararte-

koarengana joko du eta eskatuko dio gauzatu ditzala behar diren akzioak.

15. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ahalmenen barruan sartzen dira bai egintzak eta ebaizpenak bai eta horien eza ere.

16. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hauxe egin dezake:

a) 1.3 artikulua aipatzen dituen entitateen egintza edo jokabideren batek pertsona bat edo pertsona talde bat kaltetu duenean, egintza edo jokabide hori argitzeko ikerketa hasi eta aurrera eraman.

b) Gomendioak zuzendu edo legeak ezarritako agindua gogorarazi organo eskudunei eta administrazio publikoen zerbitzuko langileei; horren helburua da legezkoak edo bidezkoak ez diren egintzak zuzentzen saiatzea edo Administrazioaren zerbitzua hobetzen saiatzea.

c) Legediaren hutsuneak ikusarazi eta gomendioak eman, administrazioaren jarduna eta zerbitzu publikoak behar bezain objektiboak izan daitezten eta herritarren eskubideak modu eraginkorrean berma daitezten. Gomendio horiek Parlamentura igortzen ahalko dira eta baita ere Gubernura, toki entitateetara eta hauek osatzen dituzten edo hauen menpekoak diren entitate edo erakundeetara.

d) Dituen eskumenen esparruan txostenak egin, baldin eta hala eskatzen badiote Parlamentuak edo 1.3 artikulua aipatzen dituen entitateetako batek.

e) Bere esku dituen bitarteko guztiak erabiliz, eta batez ere komunikabide publikoen bidez, egiten duen lanaren izaera, egiten dituen ikerketak eta urteko txostena zabaldu. Horiek horrela, Foru Komunitatearen jabetzakoak diren komunikabideek Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari lekua utzi beharko diote, honi iruditzen zaionean komenigarri dela bai bere eginkizunak hobeto betetzeko bai herritarrek bere jardueraren berri izateko.

17. artikulua. Dituen eginkizunak eta eskumenak zuzen gauzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bitarteko informala eta helburua arin lortzekoak erabiliko ditu. Horretarako hurrengo hauek egin ahal izanen ditu:

a) Ikuskaketa-bisitak egin 1.3 artikulua aipatzen dituen organismo eta entitateetara, eta agiriak aztertu edo galdatu, organoak eta administrazio publikoen zerbitzuko langileak entzun eta bidezko jotzen dituen informazioak eskatu.

b) Bidezko iruditzen zaizkion ikerketak egin, baldin eta ez badituzte kaltetzen pertsonen eta kontrolpeko entitateen eskubide edo bidezko interesak.

c) Konponbideak lortu, betiere organo eta zerbitzu eskudunekin elkarlanean, eta izan daitezela pertsonen bidezko interesen ahalik eta aldekoenak. Halaber, administrazio-organok hurrengo printzipio hauetara lotu daitezela lortu: objektibotasunaren printzipioa, eraginkortasunarena, hierarkiarena, deszentralizazioarena, deskonzentrazioarena, koordinazioarena, eta legerari eta zuzenbideari erabat egin behar zaiela men agintzen duen printzipioa.

d) Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak behatzen ari den administrazioen zerbitzuko edozein funtzionario edo langileren agerraldia eskatu, ikergaiari buruzko informazioa eman dezaketenean.

2. kapitulua

Ikerketa hastea eta ikerketaren edukia

18. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, bere kabuz edo norbaitek hala eskaturik, edozein ikerketa hasi eta horrekin jarraitu ahalko du pertsonekin zerikusia duten egintzak, ez betetzeak edo ebazpenak argitzeko; hain zuzen ere, 1.3 artikulua aipatzen dituen administrazio publikoen egintzak, ez-betetzeak eta ebazpenak, eta baita horien eragileenak ere. Hori Konstituzioko 103.1 artikulua araberak egingen da, eta Konstituzioko I. tituluak aitortutako eskubiak eta libertateak babesteko.

2.- Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ahalmenen barruan sartzen dira gobernukideen administrazio-jarduerak eta, baita ere, administrazio-agintari, funtzionario edo foru lege honetako 1.3 artikulua aipatzen duen edozein Administrazio Publikoetako zerbitzuko guztiena.

19. artikulua. 1. Berezko pertsonak nahiz pertsona juridikoak, inongo mugarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarengana jo ahalko dute. Ez dira horretarako oztopo izanen nazionalitatea, egoitza edo auzotartasun zibila edo administratiboa, sexua, arraza, adingabekotasuna, herritarraren lege-gaitasuna, espetxean edo beste nonbait sartuta egotea edo administrazio edo botere publiko batekiko lotura berezia edo haren menpeko izatea.

2. Parlamentariak –zein bere aldetik–, ikerketa batzordeak eta Foru Araubide Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren esku-hartzea eskatu ahalko dute, idatzi arrazoituaren bidez, 1.3 artikulua aipatzen duen edozein Admi-

nistrazio Publikoan gertatutako jarrera, ebazpen eta egintza jakinak argitu eta iker ditzan, baldin eta bere eskumenen esparruan pertsona bati zein pertsona talde bati eragiten badiote.

3. Administrazio-agintariak ezin izanen dute kexarik aurkeztu Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren aurrean, baldin eta dituzten eskumenei dagokiena bada.

20. artikulua. 1. Nahiz eta Nafarroako Parlamentua bilduta ez egon, edo Parlamentuaren agintaldia bukatuta egon, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduna ez da etengo.

2. Horrelakoetan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak Parlamentuko Batzorde Iraunkorrera joko du.

3. Salbuespen-egoera edo setio-egoerak ez du Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduna etengo, ezta herritarrek arartekoarengana jotzeko duten eskubidea ere; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen Konstituzioko 55. artikulua xedatutakoa ezartzeko.

3. kapitulua

Kexak izapidatzea

21. artikulua. 1. Kexa guztiak interesatuak sinatuta aurkeztuko dira, eta zio eta guztizko idatzi baten bidez, izen-deiturak, helbidea eta Nortasun Agiri Nazionala edo, dagokionean, identifikazio agiria adieraziko ditu, paper arruntean eta kexaren oinarri diren egitateak ezagutu eta, gehienez ere, urtebeteko epean.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduketa guztiak dohainik izanen dira interesatua-rentzat, eta ez da aginduzkoa izanen legelari edo prokuradore baten laguntza. Kexa guztiei buruzko jasoagiri bat emanen da.

22. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko ararteko edo haren ondokoak edo aholkulari edo kolaboratzaileak eta edozein pertsonak izaniko gutun trukean eta era guztietako komunikazioetan ezin izanen da inolako kontrolrik, entzuketarik, zentsurarik egin ezta horietan interferentziarik egin ere, legeri orokorrean aurreikusitako moduan.

2. Aurreko kasuan sarturik daude atxilotuta, edo zentroren batean sartuta edo haren zaintza-pean daudenek igorritako komunikazioak.

23. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak erregistratu egingen ditu aurkeztu zaizkion kexak, eta tramitatu edo atzera botako ditu. Azken kasu horretan, idatzi arrazoitu bat eman beharko du, eta interesatuari informazioa

eman ahalko dio, zein diren biderik egokienak bere egintza gauzatzeko, baldin eta halakorik badela uste badu; interesatuak, jakina, bidezko iruditzen zaizkionak erabili ahalko ditu.

2. Epai irmoa jaso duten edo ebazpen judizialaren zain dauden kexak banan-banan aztertzen ez da hasiko Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa, eta azterketa eten egingen du, baldin eta kexak aztertzen hasi ondoren interesatu batek salaketa, kereila, demanda edo errekurso bat aurkezten badu auzitegi arruntetan, edo horietan autoak irekitzen badira.

Zernahi dela, horrek ez du eragotziko agertutako kexetan aurkeztu arazo orokorrak ikertzea. Beti ere, Foru Administrazioari zuzendutako eskaerak eta errekursoak hark, behar den denboran eta moduan, berariaz ebaz ditzan zainduko du arartekoak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak izengabeko kexak baztertu egingen ditu. Beste batzuk ere baztertu ahal izanen ditu, ohartzen bada asmo txarrez egindakoa edo oinarririk gabekoa direla edo ezer ez dela eskatzen; orobat, kexaren tramitazioak besteren baten bidezko eskubidea kaltetzen badu, edo kexa egiteko herri-tarrak administrazioa jo ez badu. Erabaki horren kontra ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu. Kexatzen den pertsonaren izena isilpean gordeko da, kasu guztietan.

24. artikulua. 1. Kexa onartu ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bidezko ikerketa labur eta informala bultzatuko du, kexaren suposamenduak argitzeko. Kasu guztietan, eskabidearen edukiaren berri emanen dio dago-kion erakunde edo sail administratiboari, haren buruak, edo haren gaineko batek, txosten idatzi, deklarazio edo dokumentazioa igor dezan, hama-bost egun balioduneko epean. Epe hori zabaldu egin ahalko da, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren iritziz inguruabarrek hala eskatzen badute.

2. Hasieran eskatutako txostena edo dokumentazioa ez dutela bidaliko edo eskura jarriko esaten badute Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek edo haien gainekoek, edo arduragabekeriak jarduten badute, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak uste ahal izanen du bere eginkizunen kontrakoak edo oztopatzekoak direla egintza horiek; hori ezagutarazi egingen du berehalakoan, eta Nafarroako Parlamentuarentzat egindako urteko txostenean edo txosten berezian, halakorik bada, kalifikazio hori nabarmendu egingen du.

3. Gauza bera gertatuko da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren jarduna eragotzi edo oztopatzen duen edozein jokabiderekin.

25. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak partikularrak etorrarazten dituenean informatzera, horiek izandako gastuak edo kalte materialak direla-eta, konpentsazioa jasoko dute arartekoaren aurrekontuaren kargura, behar bezala frogatu ondoren.

4. kapitulua Laguntza eman beharra

26. artikulua. 1. Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari, lehentasunez eta presaz, haren ikerketa eta ikusketetan.

2. Kexa bat ikertu eta egiaztatzeko aldian edo arartekoak bere kabuz hasitako espedienteetan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa, haren ondokoa edo haiek eskuordetutako pertsona joan ahal izanen dira 1.3 artikuluan aipatzen diren Administrazio Publikoen edozein egoitzatara, eta baita haien mendekoen edo zerbitzu publiko bati atxikitakoen edozein egoitzatara, behar beste datu egiaztatzerako, banakako elkarrizketak egitera edo beharrezko diren espedienteak eta dokumentazioa aztertzerako.

3. Aurreko horri dagokionez, ezin izanen zaio ukatu espediente zein dokumentazio administratiborik edo ikergai den xedearekin lotutakorik.

27. artikulua. 1. Baldin eta ikertu nahi den kexa Administrazio Publikoetako zerbitzuko langileen jokabideari eta betetzen duten eginkizunari buruzkoa balitz, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak horren berri emanen lioke ukitutakoari eta bere zuzeneko nagusiari edo, ukitua zer erakunderen mendekoa den, erakunde hari.

2. Ukituak idatziz erantzunen du, eta egoki jukatzen dituen dokumentu eta testigantza guztiak ekarriko ditu, ezartzen zaion epean. Epe hori sekula ere ez da izanen hamar egun balioduneko baina gutxiagokoa, eta hasieran emandako epearen erdia gehi dakioko, alde batek hala eskatzen badu.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak aurreko idatz-zatian aipatzen diren dokumentu eta testigantza horien egiazkotasuna konprobatu ahal izanen du, eta ukitutako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei datu, agiri edo testigantza gehiago emateko elkarrizketa bat proposatu ahal izanen die. Laguntza emateari uko egiten diotenei edo laguntza ematen ez dutenei, arartekoak eska-

tu ahal izanen die idatziz azaltzeko erabaki hori justifikatzen duten arrazoiak.

4. Ikerketa prozesuan, Administrazio Publikoen zerbitzuko langilea den batek testigantza bidez ematen duen informazioa isilpekoa izanen da; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen delitu izan daitezkeen egitateen salaketari buruz Judiziamendu Kriminalari buruzko Legeak xedatutakoa ezartzeko.

5. Ikerketa den egintza, ez egite, jokabide edo zerbitzuarekin zerikusirik ez duten partikularrei eta erakundeei inolako berririk eman gabe burutuko dira Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikerketa (honek iraun bitartean) eta prozedura-tramiteak.

28. artikulua. Nagusi hierarkiko edo organismoen batek bere agintepako edo zerbitzuko funtzionarioari edo kontratupekoari debekatzen badio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren eskareri erantzutea edo harekin hizketan aritzea, funtzionarioari eta arartekoari berari bidalitako zio eta guztizko idatziaz adierazi beharko du hori. Ordutik aurrera, arartekoak behar dituen ikerketa-jarduketak aipatu nagusi hierarkikoaren bitartez eginen ditu.

29. artikulua. 1. Indarrean dagoen legediari jarraiki, agiri bat edo informazio bat sekretu ofizial gisara kalifikatzen bada ere, horrek ez du eragotziko, hala behar bada, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hura ezagutzea eskatu ahal izatea, betiere legeak ezartzen duen bezala.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, Gobernuak, erabaki arrazoitu baten bidez, ukatu ahal izanen dio Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari informazio edo dokumentazio hori begiratzea. Arartekoak uste badu ikerketa behar bezala egiteko informazio edo agiri hori ezagutzea funtsezkoa dela, Parlamentuari edo organo edo erakunde eskudunari eman ahalko dio gobernu-erabakiaren berri.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak edo haren mendeko langileek egindako ikerketak, betiere, gordean eginen dira; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen arartekoaren ustez Nafarroako Gorteetarako txostenetan egoki diren azalpenak sartzeko, betiere legea betez.

5. kapitulua

Agintarien eta Administrazio Publikoetako zerbitzuko langileen erantzukizuna

30. artikulua. Egindako jarduketek agerian uzten dutenean kexaren sorburua Administrazio Publikoen zerbitzuko langilea den pertsona baten

abusua, bidegabekeria, bazterkeria, errakuntza, arduragabekeria edo ez egitea izan dela, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak ukitutakoarengana jo dezake gaiaren inguruan duen iritzia azal dezan. Egun berean, idatzi horren berdina igorriko dio funtzionarioaren nagusi hierarkikoari edo menpean duen erakundeari, egoki irizten dituen oharrak, iradokizunak eta abar azalduz.

31. artikulua. 1. Administrazio Publikoetako zerbitzuko edozein organismok edo pertsonak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren ikerketei kontra edo oztopo egiteari eusten badio, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak txosten berezi bat egin dezake horri buruz, urteko txostenean dagokion atalean hori azpimarratzeaz gain.

2. Horretaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere ebazpenak ez betetzeari eusten diotenak edo bere jarduera oztopatzen dutenak nor diren esan ahalko du, guztiaren berri eman ondoren erantzule den agintari gorenari.

32. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, karguaren eginkizunak betetzeagatik, delitu izan daitezkeen jokaera edo egitateen berri izaten duenean, berehala jakinaraziko dizkio fiskaltzari.

2. Nafarroako Auzitegi Nagusiko fiskalen buruak, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak eskaturik hasitako jarduketan tramitazioa zertan den jakinarazi ahalko dio, arartekoak hala eskatzen duenean.

III. TITULUA Ebazpenak

1. kapitulua Edukia

33. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, nahiz eta Administrazioaren egintzak edo ebazpenak aldatu edo baliogabetzeko eskumenik ez izan, egintza eta ebazpenak sortzean erabilitako irizpideak aldatzeko eskatzen ahal du.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren esku-hartzeak ez du inoiz ere epeen iragaitea etenen.

2. Egindako ikerketen ondorioz Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa ziur badago araua zorrotz aplikatzeak justiziaren aurkako edo herritarren kalterako egoerak sor ditzakeela, organo legegile eskudunari edo Administrazioari hura aldatzeko eskatu ahal izanen dio.

3. Administrazio-egintza batek partikular bat zerbitzuak egiteko gaitu, eta zerbitzu horiek ematean gertatzen badira jarduketak, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak administrazio-agintari eskudunak premiatzen ahal ditu, beren ikuskatzailletza eta zehapen eskumenak erabil ditzaten.

34. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, egiten dituen ikerketak direla eta, oharpenak, gomendioak, lege-betebeharren gogorazpenak eta neurri berriak hartzeko iradokizunak egin ahal izanen dizkie Administrazio Publikoen zerbitzuko agintariei eta funtzionarioei.

2. Behin gomendioak egin ondoren, ukitutako agintari administratiboak bi hilabeteko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu ildo horretan, edo Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari ez badio ematen neurri horiek ez hartzeko arrazoi berri, arartekoak gai horren aurrekariak eta aurkeztutako gomendioak, oharpenak, gogorazpenak edo iradokizunak jakinarazi ahal izanen dizkio ukitutako administrazioaren agintari gorenari. Hala jokatura ere justifikazioa lortzen ez badu, gai hori urteko txostenean edo txosten berezian sartuko du, jarrera hori izan duten agintarien edo Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen izenen berriazko aipamenarekin, eta betiere arartekoaren iriziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konponbide hori lortu ez den kasuen artean.

2. kapitulua

Jakinarazpenak eta komunikazioak

35. artikulua. 1. Egindako ikerketa eta kudeaketan emaitzen berri emanen dio Nafarroako arartekoak interesa duen alderdiari, baita inplikaturako administrazioak edo bere zerbitzuko langileek emandako erantzunaren berri ere.

2. Arartekoaren esku-hartzea foru lege honetako 19. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera hasi denean, arartekoak lortutako emaitzen berri emanen dio eskaera egin duen foru parlamentariari edo batzorde eskudunari, behin ikerketak bukatuta. Era berean, esku ez hartzea erabakitzen duenean, horren arrazoi berri eman beharko du.

3. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak egindako ikerketen emaitza positibo edo negatiboren berri emanen dio ukitutako agintari, funtzionario edo kontratatuari edo bulego administratibolari.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erabakien aurka ezin izanen da inolako errekurtsorik aurkeztu.

IV. TITULUA

Parlamentuarekiko harremanak

1. kapitulua

Nafarroako Parlamentuarentzako txostena

36. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak urtero emanen dio egindako kudeaketei buruzko txostena Nafarroako Parlamentuari; ohiko bilkuraldian aurkeztu beharko dio txosten hori.

2. Egitateen larritasunak, garrantziak edo presak horretarako bide ematen dutenean, ezohiko txosten bat edo txosten monografiko bat aurkeztu ahalko dio Parlamentuko Batzorde Iraunkorrari, Parlamentua bildurik ez badago.

3. Urteko txostenak eta, halakorik bada, ezohiko txostenak edo txosten monografikoak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

37. artikulua. 1. Urteko txostenean, aurkeztutako kexen kopurua eta motak, eta horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik azalduko du Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak, baita zenbat gai ikertu diren eta ikerketa horien emaitzak ere; gainera, Administrazioak onartu dituen ohar, iradokizun, gogorazpenak edo gomendioak zehaztuko dira..

2. Txostenean ez da emanen ikerketa-prozeduran interesa dutenen datu pertsonalik haiek nor diren ezagutzera ez emateko; hala ere, hori ez da eragozpen izanen 34. artikuluan xedatutakoa ezartzeko.

3. Txostenak eranskin bat ere izanen du. Eranskinaren hartzailea Nafarroako Parlamentua izanen da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da.

4. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak txostenaren laburpen bat azalduko du, ahoz, Parlamentuan; ondoren, Parlamentuko taldeek parte hartu ahal izanen dute beren jarrera azaltzearen.

V. TITULUA

arartekoarekiko harremanak

1. kapitulua

Autonomia eta lankidetzak

38. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak modu independente eta autonomoan funtzionatuko du Gorte Nagusiek izendatutako arartekoarekiko, eta 1.3 artikuluan aipatzen diren erakundeen, organismoen eta entitateen inguruko ikerketa-ahalmenak erabiltzea dagokio; hori guz-

tia, hala ere, ez da eragozpen izanen apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren 12. artikuluari jarraiki arartekoak izaten ahal dituen ahalmenak izan ditzan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak hitzarmenak egin ahal izanen ditu Gorte Nagusiek izendatutako arartekoarekin, elkarrekin eginen dituzten jarduketetarako irizpideak finkatzeko, bi erakundeen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta elkarlana gauzatzearren.

3. Egiten dituzten hitzarmen orokorren berri emanen zaio Nafarroako Parlamentuari, haien berri izan eta ones ditzan. Hitzarmenak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

39. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa, bere kabuz edo norbaitek hala eskaturik, arartekoari zuzendu ahal izanen zaio, arrazoirik, hark, bidezkotzat jotzen duenean, herritarren interesak defendatzearren jarduketa hauetakoren bat egin dezan:

a) Konstituziokontakotasun errekurtsua edo babes errekurtsua jarri edo erabili.

b) Estatuko Administrazioari gomendioak edo iradokizunak zuzendu, baldin eta 1.3 artikuluan aipatzen diren organo eta entitateen funtzionamendu akatsak Estatuko Administrazioaren funtzionamendu akatsetatik sortzen direnean edo Estatuaren eskumeneko arauetatik eratorriak direnean.

VI. TITULUA

Giza-baliabideak eta baliabide materialak

1. kapitulua Langileak

40. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak askatasunez izendatu eta kargutik kenduko ditu bere eginkizunak betetzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak, Erregelamenduari jarraiki, eta duen aurrekontuaren mugen barruan. Horiek, Nafarroako Parlamentuko konfiantzazko langileen araubideari lotuko zaizkio.

2. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren gainerako langileak Nafarroako Gorteen plantillako langileak izanen dira, eta haien esku egonen da destinoa ematea, diziplina-ahalmena –zerbitzutik kentzea izan ezik– eta lan kontratatu edo funtzionario egoerari dagozkion gainerako egintzak.

41. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren zerbitzuko langileak, izendapen

librekoak, Foru Komunitatearen Administrazioetik edo Nafarroako Toki Enteetatik datozenean, zerbitzu horiei atxiki aurretik zuten lanpostua eta destinoa gorde eginen zaizkie, eta egoera horretan iragandako denbora kontuan hartuko zaie ondorio guztietarako.

2. Langileak beste administrazio publiko edo entitate batzuetatik datozenean, aurrekoak ez beste batzuetatik, aplikatzekoa den legediak xedatuaren arabera jokatuko da.

42. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren bulegoari atxikitako aholkulariek eta laguntzaileek eta Nafarroako Gorteetako plantillakoak ez diren langileek kargua utziko dute Nafarroako Foru Komunitateko ararteko berriak kargua hartzen duen unean bertan.

2. kapitulua Baliabide materialak

43. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak bere aurrekontuaren aurreproiektua eginen du, eta Parlamentuko Aurrekontuaren proiektua arautzen duten arauak jarraiki tramitatuko da.

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren dotazio ekonomikoa Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontuko kontusail bat izanen da.

44. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa kontabilitaterako, kontuhartzaitzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondatsun eta eskubideak eskuratzeko Nafarroako Parlamentuak horretarako duen araubide beraren mende egonen da.

45. artikulua. Partikularrek 25. artikuluan xedatutakoaren arabera izandako gastuei edo kalte materialei aurre egiteko, kontusail bat izanen da Nafarroako Foru Komunitateko arartekoren aurrekontuan.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak proposaturik, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsiko du erakunde honen antolamenduaren eta funtzionamenduaren erregelamendua, bai eta aurrerago eginen zaizkion aldaketak ere.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartu eta ondorengo lau hilabeteen barruan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa izendatzeko prozedura hasiko du.

Hirugarrena. Foru lege honek indarra hartu eta bost urte igarota, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak arrazoitutako txosten batean egin

beharreko aldaketak oro proposatu ahalko dizkio Nafarroako Parlamentuari.

Xedapen iragankorra

Kexen iturburua Nafarroako Foru Komunitateko arartekoak jabetza hartu baino urtebete lehenago emandako administrazio-egintza bat bada edo, administrazioaren isiltasuna izan denean, jabetza hartu baino urtebete lehenago igaro baldin bada epea, kexak horiek ez dira aintzat hartuko;

hori, hala ere, ez da eragozpen izanen arartekoak bere kabuz ikerketa bat hasi ahal izateko, kexaren kausa Administrazioaren funtzionamendu orokorraren akatsa dela uste izanez gero.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioaren 39. artikulua dioenez, botere publikoen ardura da familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzea. Artikulu horrek ez du famili eredu jakinik ezta eredu nagusirik ere aipatzen; beraz, familia zer den modu zabalean interpretatu beharko dugu, egungo errealitate sozialaren arabera eta Konstituzioko gainerantzeko artikuluek ezarritakoen arabera; bereziki kontuan hartu beharko dira 9.2 artikulua (botere publikoari ezartzen die eginbeharra gizabanakoaren eta gizabanakoak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izateko baldintzak sustatzeko) eta 14. artikulua (espainiarrak berdinak dira legearen aurrean eta inor ez da baztertuko jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta).

Gure ordenamendu juridikoan agertzen dira jadanik zenbait kasu non ezkonduetakoen antzeko egoera aitortzen zaien ezkonduetakoen antzeko afektibitate harremana izan eta modu egonkorrean elkartuta dauden bikoteei; bereziki, adopzioari, hiri-errentamenduei, asilo-eskubideari, zenbait xedapen penali eta gizarte-prestaziori dagokienez.

Hala ere, legeetan, oraindik, zenbait xedapenek baztertu egiten ditu tradizionala ez beste famili ereduak, hau da, ezkontza bidez gauzaturakoa ez beste guztiak; horrela, ez da kontuan hartzen Konstituzioko 32. artikulua ezkontzeko eskubidea aitortzen duenean, orobat, beste famili eredu bat aukeratzeko eskubidea ere aitortzen duela, eta aukera horrek ez du zertan ekarri aukera hori dutenentzat legea okerragoa izatea.

Foruaren Hobetzearen 48. artikulua ezartzen duenez, Nafarroak eskumen osoa du foru zuzenbide zibilaren arloan. Halaber, Nafarroak baditu eskumenak bikote egonkorren egoera ukitzen duten beste arlo batzuetan ere.

Foru lege honek nahi duena da legedian dirauen bazterkeria desagertaraztea, hau da, gure inguru sozilean kulturalki onartzen diren famili forma ugariak kontuan hartuta, familia hori osatzen dutenen egoera pertsonal edo soziala dela-eta legeetan dirauen bazterkeria desagertaraztea; orobat, foru lege honek nahi du familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren arau garapena burutu –babes hori Konstituzioaren printzipioetako bat dela hartu behar da kontuan–. Hori egiteko, araudia egokitu egin behar da gaur egungo gizartearen errealitateari.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ez baztertzearren printzipioa.

Nafarroako ordenamendu juridikoa interpretatu eta aplikatzerakoan, inor ez da baztertuko osatzen duen famili taldea osatzen duela ere, eta ez dira kontuan hartuko ez filiazioa, eta ezta ere famili talde hori ezkontza bidez osatu den edo antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi diren pertsona bi elkartuz osatu den -sexu-joera kontuan izan gabe.

2. artikulua. Bikote egonkorra kontzeptua.

1. Hurrengo artikuluetan, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartze libre, publiko eta nabarmena, ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren pareko harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol- edo adopzio-ahaidetasunik ez badute. Elkartze hori osatzen duten kideek ezin izanen dute beste pertsona batekin ezkontza-loturarik izan edo bikote egonkorrik osatu.

2. Elkartzea egonkortzat joko da bikoteko kideak etenik gabe gutxienez ere urtebetez elkarrekin ezkonduita bailiran bizi izan badira; hala ere, bien arteko seme-alabarik badute, nahikoa izanen da elkarrekin bizitzea. Betiere, elkartzea egonkortzat jotzeko nahikoa izanen da bikotea eratzeke borondatea agiri publiko bidez adieraztea.

Baldin eta bikotekide batek edo biek ezkontzalotura bat badute, horietako azkenak ezkontza-desegitea edo, kasua bada, deuseztasuna lortzen duen unera arte elkarrekin bizitzen igarotako denbora kontuan hartuko da adierazitako urtebeteko epea zenbatzean.

3. Foru lege honetako xedapenak bikote egonkorrei aplikatuko zaizkie bikote egonkorreko kideetako batek gutxienez Nafarroako auzotartasun zibila baldin badu.

3. artikulua. Egiaptapena.

Bikotea egonkorra dela eta elkarrekin bizitzen urtebete igaro dutela Zuzenbidean onarturiko edozein frogabideren bitartez egiaptatu ahalko da.

4. artikulua. Bikote egonkorra desegitea.

1. Hurrengoren bat gertatuz gero joko da desegintzat bikote egonkorra:

a) Bi kideetako bat hiltzen bada edo hiltzat deklaritzen badute.

b) Bi kideetako bat ezkontzen bada.

c) Bi kideek hala erabakitzen badute.

d) Bi kideetako batek bere kabuz hala erabaki eta besteari modu fede-emaitan jakinarazten badio.

e) Urtebete baino gehiago ematen badute elkarrekin bizi gabe.

f) Bi kideek eskritura publiko bidez zerbait hitzartu eta hori gertatzen bada.

2. Bikoteko bi kideak behartuta daude noizbait dokumentu publiko bidez adierazia izan lezaketen indarrik gabe uztera –nork bere aldetik, hala izan behar badu–.

3. Bikote egonkorra osatzen duten kideek ezin izanen dute beste norbaitekin beste bikote egonkor bat eratu, non eta lehenengo bikotea ez den desegin lehen idatz-zatian ezarrita dagoen zerbait gertatzearen ondorioz.

4. Bikote egonkorraren iraungitzeak bi kideetako edonork bestearen alde emandako botereak berreskuratzea ekarriko du.

II. KAPITULUA

Bikotearen harremanaren edukia

5. artikulua. Elkarbizitzaren arautzea.

1. Bikote egonkorra osatzen duten kideek dokumentu publiko edo pribatuz arautu ahalko dituzte, balio osoz, elkarbizitzaren ondoriozko harreman pertsonalak eta ondarezkoak, bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak adieraziz. Oro-

bat, bikotea osatzen duten kideek arautu egin ahal izanen dituzte egoki deritzeten ordain ekonomikoak bikotea desegiten den kasurako, Foru Lege honek ezarritako gutxieneko eskubideak betiere errespetatuz; eskubide horiei ezin zaie uko egin exijitu ahal direneko unea iritsi bitartean.

2. Ezin izanen da hitzartu bikote egonkor bat aldi baterako eratzea, ez eta hori inolako baldintzaren menpean jarri ere.

3. Hitzarmenik ezean, bikote egonkorra osatzen duten kideek ahal duten neurrian lagunduko dute etxea mantentzen eta gastu komunei aurre egiten, bai dirua emanez bai lan pertsonala eginenez. Gastu komunei aurre egiteko ekarpen zat joko dira etxean eginiko lana, beste kidearen lanbiderako edo enpresarako laguntza pertsonal edo profesionala ematea –horren truke inolako ordainik edo behar adinako ordainik jaso gabe– eta norberaren jardueratik edo ondasunetatik eratorritako baliabideak, norberaren dirusarreraren proportzioan, eta, horiek nahiko ez balira, norberaren ondasunen proportzioan.

Ez dira gastu arruntzat joko kide bakoitzak bere ondasun propioak kudeatzearen eta babes-tearen ondorioz sortutako gastuak; ezta ere, orobat, bikotekideetako baten interesei erantzuten dietenak.

4. Elkarrekin bizitzeari uztean, bikoteko kideetako edozeinek besteari aldikako mantenua eskatu ahalko dio, bizibidea izan ahal izateko; hurrengo kasuetan eskatu ahalko da:

a) Elkarrekin bizitzearen ondorioz, eskatzaileak diru-sarrerak lortzeko zeukan gaitasuna gutxitu egin bada.

b) Elkarrekin izandako seme-alabak –bere ardurapekoak– zaindu beharrezko ondorioz lan-jarduerarik ezin badu burutu edo horretarako oztopo larriak baditu.

5. Hitzarmenik ezean, bi kideek bizirik daudela uzten badiote elkarrekin bizitzeari, inolako ordainketarik edo behar adinakorik jaso gabe bikotearentzat edo bikotekidearentzat lan egin duenak eskubidea izanen du diru-ordainsari bat jasotzeko baldin eta, aipaturiko arrazoiaren ondorioz, bidegabeko aberastea ekarri duen desoreka-egoera bat sortu bada bien ondareen artean.

6. artikulua. Mantenuagatik aldizka eman beharreko pentsioaren eta konpentsazio ekonomikoaren eskaera.

1. Aurreko artikuluko 4 eta 5. idatz-zatiek aipatzen duten eskubideen eskaera hori elkarbizitza

amaitzen denetik urtebeteko epearen barrenean egin beharko da.

2. 4.4 artikulua manatutako betebeharra, a letraren kasuan, hiru urteko epean amaitzen da, lehenengo pentsioaren ordainketa egunetik aitzina, oro har, elikagaietarako eskubidea amaitzeagatik eta horren onuraduna ezkontzen den momentutik edo ezkonduak bezala bizitzen hasten denetik aitzina. b letraren kasuan aldiz, arrazoa edozein delarik ere seme-alabenganako ardura eteten denean edo horiek adinez nagusi izatera iritsi edo emantzipatzen direnean; salbuespen izanen dira ezgaitasun kasuak.

3. 4.5 artikulua manantzen duen konpentsazioaren ordainketa hiru urteko epean egingen da, gehienez ere, aitortu izan denetik aitzinako legezko korrituekin. Konpentsazioa eskudirutan egingen da, salbu eta bi aldeen artean ados jartzen badira edo epaileak, frogatutako arrazoa izanik, horretara behartuta dagoen bizikidearen ondasunekin ordaintzea baimentzen badu.

4. Mantenuagatik aldizka eman beharreko pentsioa murriztu edo desagertuko da konpentsatzen duen desoreka gutxitzen edo desagertzen den heinean.

7. artikulua. Ondare erantzukizuna.

Bikote egonkorra osatzen duten kideek modu solidarioan erantzungo dute hirugarrenen aurrean baldin eta sorrarazi dituzten betebeharrak beharrezkoak baziren etxea mantentzeko eta elkarrekin izaniko seme-alabez arduratzeko.

8. artikulua. Adopzioa.

1. Bikote egonkorra osatzen duten kideek elkarrekin adoptatu ahalko dute, eta ezkonduetako bikoteen eskubide eta betebeharrak berak izanen dituzte.

2. Bikote egonkorrek osaturiko famili eredia ere jasoko da umeen adopzio eta hartzeari buruzko foru araudian, eta, horretarako, aldatu egingen da foru araudia.

9. artikulua. Akzio eta eskubideez baliatzea.

1. Bikote egonkorreko kideak eta ezkonduetako bikoteetako kideak egoera berean egonen dira hurrengo gaiei buruzko xedapenekiko: tutoretza, kuradoretza, ezgaitzea, absentzi deklarazioa eta zarrastel deklarazioa.

2. Idatz-zati berri bat eransten zaio Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bilduma edo Foru Berriari buruzko 62. Legeari. Honela gelditzen da: "Bikote egonkorreko kideak eta ezkonduetako bikoteetako kideak egoera berean egonen dira gai hauekin lotutako akzioez baliatzeari dagokionez:

ezgaitzea, absentzi deklarazioa eta zarrasteltasun deklarazioa".

10. artikulua. Elkarrekin izandako seme-alaben zaintza eta bisita araubidea.

1. Bikote egonkorra bertan behera gelditzen bada bi kideak bizirik daudela, haiek erabaki ahal izanen dute zer den egokiena haien iritziz, gai hauen inguruan: elkarrekin izaniko seme-alaben zaintza, eta bisita, komunikazio eta egonaldien araubidea. Nolanahi ere, epaileak adostutakoa neurri egoki eta zuzenera ekartzeko ahalmena izanen du, haren iritziz kideren batentzat edo seme-alabentzat arras kaltegarria denean.

2. Adostasunik ezean, epaileak hartu du erabakia, adin txikikoen hobeez, eta seme-alabei entzun ondoren, behar adina ezagutza baldin badute, edo 12 urtetik gorakoak badira.

III. KAPITULUA

Oinordetzaren, zergen eta funtzio publikoaren araubidea

11. artikulua. Oinordetzaren araubidea.

Nafarroako foru zuzenbide pribatuko Bilduma edo Foru Berriari ondoko aldaketak egingen dira:

1. 253. Legeari bigarren lerrokada gehitzea, erredakzio honekin: "ondorio hauetarako, legeak onartutako bikote egonkorren kide bat hilez gero, alargun gelditzen den kidearen egoera ezkontide alargunaren egoeraren parekotzat joko da."

2. 304. Legearen 5. idatz-zatia aldatzen da, eta erredakzio hau izanen du: "5. 254. Legeari jarraituz, fideltasun usufruktutik bazterturik ez dagoen ezkontidea edo bikote egonkorren kidea."

3. 341. Legea aldatzen da, eta erredakzio hau izanen du: "Oinordekoa, parte alikuotaren legatu-hartzailea, ezkontide alarguna edo legeak onartutako bikote egonkorrean alargun gelditutako kidea ezin dira kontulari-partitzaile izan."

12. artikulua. Araubide fiskala.

1. Bikote egonkor bateko kideak ezkontidetzat hartuak izanen dira Nafarroako legedia fiskalak aurreikusitako ondorioetarako, errendimenduak zenbatu eta kenkariak edo salbuespenak aplikatzeari dagokionez.

2. Oinordetzaren eta ondare eskualdaketen gaineko zergak ordainaraztearen esparruan Nafarroako Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 10ean onetsitako arauetan ondoko aldaketak egingen dira:

a) 13. artikuluari idatz-zati berri bat gehitzea.

“Arau hauei dagokienez, bikote egonkorretako kideen egoera ezkontideenarekin parekatuko da”.

b) 29. artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran honako hau gehituko da: “edo bikote egonkor bateko kide”.

c) 40. artikuluko 1 idatz-zatiko a) letrako lehen lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“Jaraunspenaren kausatzailea hil baino gehiezin ere urtebete lehenago bereak izan ziren mota guztietako ondasunak, salbu eta froga fede-emai-le bidez agertzen baldin bada kausatzaileak ondasun haiek eskualdatu zituela eta oinordeko, legatu-hartzaile, hirugarren gradurainoko ahaide edo horietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorrek ez beste pertsona batek dauzkala”.

d) 40. artikuluko 1. idatz-zatiko b) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“b) Heriotzaren aurreko hiru urteko epearen barnean kausatzaileak kostubidez usufruktuan eskuratutako ondasun eta eskubideak eta aipaturiko epe horretan oinordeko batek, legatu-hartzaile batek, hirugarren gradurainoko ahaide batek edo horietako edozeinen edo kausatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorrek jabetza soilen eskuratutako ondasun eta eskubideak”.

e) 40. artikuluko 4. idatz-zatiaren bukaeran honako hau gehituko da: “edo bikotekide egonkorra”.

f) 45. artikuluko 3. idatz-zatiko c) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“c) Ez dadila ager oinordekoen edo kuota-partea bateko legatu-hartzaileen alde hartua izan denik, ez eta oinordeko edo legatu-hartzaile horien ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso, ondorengo edo neba-arreben alde ere”.

g) 48. artikuluko 2. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“2. Arbasoen eta ondorengo legezkoe eta geroagoko ezkontza baten bitartez legeztaturiko seme-alaben artean, adoptatzaileen eta adopzio osoz adoptaturikoen artean eta ezkontideen edo bikotekide egonkor bateko kideen artean.....Salbuetsiak”.

h) 113. artikuluko 1. idatz-zatiko a) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“a) Erregistro fiskalen arabera pertsona baten ondareak behera egin badu eta sinkronikoki,

beranduago, baina inola ere ez bi urte pasa ondoren, ezkontide edo bikotekide egonkorren, ondorengoan, adopziozko seme-alaben edo horietako edozeinen ezkontideen edo bikotekide egonkorren ondareak, berriz, gora”.

i) 113. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letrako lehen lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“b) Ondorengorik edo adopziozko seme-alabarik gabeko ezkontide alargunik edo bikotekide egonkorrik utzi gabe pertsona bat hil ondoren Erregistro berek kausatzailearen ondasunaren bilakaeran gutxitzeren bat izan dela agertzen badute; hain zuzen ere, oinordekoen edo legatu-hartzaileen ondare-gehikuntzarekin sinkronikoki edo beranduago, baina inola ere ez hiru urte igaro eta gero, lotura daukaten gutxitzeak”.

j) 113. artikuluko 1. idatz-zatiko c) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“c) Industria Zergako altak eta bajak ikertzean ikusten bada ondorengoak edo ezkontideak alta egin duela arbasoak edo beste ezkontideak edo bikotekide egonkorreko beste kideak baja hartu zueneko negozio berberaren kariaz.”

k) 116. artikuluko 74. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“74. Enpleguak hiltzean enpresek enplegatu horien ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso edo legezko ondorengoei, naturalei zein adopziozkoei, emandako 500.000 pezetarainoko kantitateak, baldin eta, betiere, frogatu egiten bada, batetik, heriotza gertatzean enplegatu horiek enpresako enplegatu finko, sasoikako edo aldi baterakoak zirela, eta, bestetik, heriotza gertatu zen egunaren edo heriotza eragin zuen eritasunarengatik edo istripuarengatik baja hartutako egunaren edo erregelamenduei jarraituz erretiratu ziren egunaren aurreko hiru hilabeteetan etenik gabe eman zizkiotela beren zerbitzuak enpresa horri”.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legean ondoko aldaketak eginen dira:

a) 14. artikuluko 2. idatz-zatiko d) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“d) Ezkontide edo bikotekide egonkorrengandik jasotako konpentsazio-pentsioak eta mantenerako urteko kantitateak”.

b) 55. artikuluko 2. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“2. Konpentsazio-pentsioengatik. Kontzeptu horrengatik ezkontidearentzat ordaindutako kanti-

tateak eta mantenurako urteko kopuruak, zergadunaren seme-alaben alde ezarritakoak salbu –bi kantitate horiek epailearen erabakiz ezarri behar ko dira–; halaber, bikotekide egonkorrarentzat ordaindutako kantitate legez galdagarriak”.

c) 62. artikuluko 1.e). idatz-zatiko bigarren lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“Lagundutako pertsonaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak eginen du dedukzioa, eta, ezkontiderik edo bikotekiderik ezean, graduaren arabera hurbilen duen senideak”

d) 62. artikuluko 4.f) idatz-zatiko b') lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“b') Dedukzioa egiteko eskubidea emanen dute subjektu pasiboaren beraren edo berarekin bizi diren ezkontide, bikotekide egonkor, arbaso edo ondorengoaren minusbaliotasunaren ondorioz subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan egin beharreko obrek eta egokitze-instalazioek”.

e) 71. artikuluko 1. idatz-zatia aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“1. Zerga honen eraginetarako, ondokoak dira famili unitateak:

a) Legez berezita ez dauden senar-emazteek eta, kasua bada, adin txikiko seme-alabek –gurasoen baimenez haiengandik aparte bizi direnak izan ezik– eta judizialki ezgaitutako adin nagusiko seme-alabek, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenek osatutakoa.

b) Bikote egonkor batek –bere legedi berariazkoari jarraikiz– eta, kasua bada, adin txikiko seme-alabek –gurasoen baimenez haiengandik aparte bizi direnak izan ezik– eta judizialki ezgaitutako adin nagusiko seme-alabek, luzatu edo birgaitutako guraso-ahalgopean daudenek osatutakoa.

c) Legezko banantzea izan denean edo ezkontza-loturarik ez dagoenean, famili unitatea aitak edo amak eta batarekin edo bestearekin bizi diren seme-alaba guztiek osatzen dutena izanen da, baldin eta aurreko idatz-zatietako baldintzak betetzen badituzte”.

f) 75. artikuluko 6. erregela aldatuko da. Hone-lari idatzita geratuko da:

“6. 71. artikuluko 1.a) eta 1.b) idatz-zatiek aipatzen dituzten famili unitateen kasuan, 55. artikuluko 4. idatz-zatiko 2. erregela aplikatzearen ondorioz ezkontideetako edo bikote iraunkorreko kideetako batek ezin izan duenean osoki aplikatu 3. idatz-zatian aipatzen den murrizketa, gerakina beste ezkontidearen edo bikotekide egonkorraren gutxieneko personalari erantsiko zaio”.

13. artikulua. Funtzio publikoaren araubidea.

1. Bikote egonkorra osatzen duten kideak ezkontide gisa hartuko dira lizentziei, baimenei, administrazio-egoerei, lanpostu-hornidurari, famili laguntzari eta eskubide pasiboari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuak aurreikusitako ondorioetarako.

2. Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 50. artikuluko 1. idatz-zatiko a) lerrokada aldatuko da. Honela idatzita geratuko da:

“a) Dirusarrerarik ez duen ezkontide edo bikotekide egonkorrarengatik.....% 3,50”.

3. Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 75. artikulua aldatuko da. Honela idatzita geratuko da: “Aldarguntasun pentsioa jasoko dute funtzionarioen eta erretiro-pentsiodunen ezkontide eta bikotekide egonkorak, baldin eta erregelamenduz ezarriko diren baldintzak betetzen badituzte”.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak eta Udalek Bikote Egongorren Erregistroak sortu ahalko dituzte, bikoteen borondatezko inskripzioaren bitartez horien eraketari buruzko frogak errazteko.

Foru Lege honek araututako bikoteak Erregistro Zibilean inskribatzea aurreikusten badu Estatu-ko legediak, Foru Lege honek lotzen dizkien ondorioak inskribatzen diren bikoteei dagozkiela ulertuko da.

Xedapen iragankorra

Foru lege honetako xedapenak lehenagotik eraturako bikote egongorrei aplikatuko zaizkie foru legea indarrean sartzearekin bat, baldin eta 2. artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduak emanen ditu foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hilabete barru hartuko du indarra.

Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaira bildaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2000ko uztailearen 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoa

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua dioenez, botere publikoen betebeharra da familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzea. Artikulu horrek ez du famili eredu jakinik ezta eredu nagusirik ere aipatzen; beraz, familia zer den modu zabalean interpretatu beharko dugu, egungo errealitate sozialaren arabera eta Konstituzioko gainerantzeko artikuluek gizakiari buruz ezarritakoen arabera. Espainiako Konstituzioko 9.2 artikulua ezartzen duenez, botere publikoek ziurtatu egin beharko dute elkartze hori -gizartearentzako elkarbizitza eta afektibitatea ezaugarri dituen elkartze hori- benetako askatasun eta berdintasun eragingarri gerta dadila; izan ere, benetako askatasun eta berdintasun horrek Espainiako Konstituzioko 1.1 artikulua arabera, antolamenduaren goi-baloreak dira. Inguruabar horretan, askatasuna da norberak aukeratzea zer bide nahi duen erabili familia osatzeko, eta, horrela, norberak bere nortasuna askatasunez garatu ahal izatea; irtenbide horrek, halaber, norberaren duintasuna errespetatzea ere bermatzen du (Konstituzioaren 10.1 artikulua arabera, norberaren nortasuna askatasunaz garatzea eta giza-duintasuna, biak ala biak, ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri dira); orobat, berdintasunak aukera hori hartzea bermatzen du, eta ezin izanen da inor baztertu egoera pertsonala edo soziala dela-eta, 14. artikulua debekatu egiten baitu; gainera, familia babestu egin behar da, oinarritzko eskubideak egikaritzeko tresna egokia

baita, eta baita Konstituzioaren 10. artikuluan ezarritako printzipioak aurrera eramateko ere, eta hori guztia bat dator Konstituzioa eta legediarekin, horien ezaugarri baita pertsonaren errespetua. Halaber, kontuan izan behar dira Konstituzioaren 39. artikulua, 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko 16.3 artikulua eta 1966ko abenduaren 19an New Yorken sinatutako Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 23. artikulua, horiek familia lege bidez babestu behar dela agintzen baitute, eta familia ez dela beti ezkontzaren bidez gauzaten; beraz, zuzenbideak dituen esparru guztietan famili harremanei buruzko arauak aldatzea beharrezko da, horiei zentzua zabaltzea alegia. Orain gutxi aldatetako egin eta horiek modernizatzea ekarri badute ere, zenbait xedapen, oraindik, famili babesaren printzipioaren betetze osoaren aurkakoak dira; izan ere, jarraitzen dituzten irizpideek batzuen alde egiten dute edo, eratzeko modua kontuan hartuta, trataera desegokia ematen die, eta Konstituzioaren 32. artikulua ezartzen duen ezkontzeko eskubidea ez ezkontzekoa ere bada, eta edonola ere eskubide horiek ez daude nahitaez familia osatzearekin lotuta.

Lege honek nahi duena da legedian dirauen bazterkeria desagertaraztea, hau da, gure inguru sozialean kulturalki onartzen diren famili forma ugariak kontuan hartuta, familia hori osatzen dutenen egoera pertsonal edo soziala dela-eta legetan dirauen bazterkeria desagertaraztea; orobat, lege honek nahi du familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren arau garapena burutu -babes hori Konstituzioaren printzipioetako bat dela hartu behar da kontuan-. Hori egiteko, araudia egokitu egin behar da gaur egungo gizartearen errealitatera eta, halaber, errespetatu eta bete hurrengo hauek: homosexualak ez baztertzeko Europako Kontseiluak eginiko gomendioa kide diren estatuetak ministro kontseiluei -Diputatuen Kongresuak 1985ko ekainaren 11n berretsi zuen- eta Europako Parlamentuko Osoko Bilkurak 1994ko otsailaren 8an harturiko Erabakia, Europako Komunitatean bai homosexualek eta bai lesbianek eskubide berak izateari buruzkoa. Azken erabaki horrek oinarri hartzen du herritar guztiak berdin tratatu behar direlako uste osoa, sexu-joe-rak kontuan izan gabe, eta Europako Komunitateko estatuei eskatzen die indar gabe utz ditzatela sexu bereko pertsonen arteko harremanak baztertu edo kriminalizat hartzen dituzten xedapen juridiko guztiak. Lege proposamen honen bidez pare-

katu egin nahi dira ezkontideak eta afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi direnak –sexu-joera kontuan izan gabe–, eta bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonen arteko elkartzetako libre, publiko eta nabarmena, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira eta lehenengo eta bigarren mailako odol-ahaidetasunik ez badute. Elkartze hori osatzen duten kideek ezin izanen dute beste pertsona batekin ezkontza-loturarik izan, non eta ezinezkoa ez den lotura hori haustea aldeek hala nahi izanda ere. Autonomi erkidego edota udalen erregistro berezien bidez egiaztatu ahal izanen da elkartzetako egonkor hori, eta baita udal erroldaren bidez eta agiri publiko bidez ere. Elkartze hori iraungitzean, kide biek edo bietako batek eska dezake erregistroetako inskripzioa deuseztatzea eta baita agiriak ere.

Aurreko guztiaz gain, gizarteak eta gizartea egituratzen duten erakundeek hala eskatu dutelako aurkeztu da ekimen hau; izan ere, kezka sortu zen antzeko bi ekimen aurkeztu eta Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak atzera bota zituelako 1997ko martxoaren 17an. Ekimen horiek atzera botatzeko erabili zen argudio eskasa hau izan zen: azpi batzorde bat sortuko zela gai hori arautzeko beharrezkin zerikusia duten zenbait gai aztertzeko. Argudio horrek ez du kontuan hartzen Konstituzioak eta Erregelamenduak zenbat aukera ematen dituzten lege-ekimen bat aztertu, hausnartu eta zuzentzeko: emendakinak, txostena eta irizpenak –eta horiek denak legea onetsi aurretik egiten dira.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Inor ez da baztertu osatzen duen famili taldea osatzen duela ere, eta ez dira kontuan hartuko ez filiazioa, eta ezta ere famili talde hori ezkontza bidez osatu den edo antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi diren pertsona bi elkartzetako osatu den –sexu-joera kontuan izan gabe–. Printzipio horren aurkako edozein lege edo hitzarmen deuseza izanen da eta eraginik gabea.

2. artikulua. Hurrengo artikuluetan, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartzetako libre, egonkor, publiko eta nabarmena, ezkonkideenaren antzeko afektibitate-harremanaren pareko harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta lehenengo eta bigarren mailako odol-ahaidetasunik ez badute. Elkartzetako hori osatzen duten kideek ezin izanen dute beste pertsona batekin ezkontza-loturarik izan, lotura hori haustea –aldeek hala nahi izanda ere–

ezinezkoa denean baizik. Elkartzetako egonkortzat joko da gutxienez urtebete iraun duenean; hala ere, bien arteko seme-alabarik badute, nahikoa izanen da elkarrekin bizitzea.

3. artikulua. Aurreko artikuluan agertzen diren harremanak hurrengo bidez egiaztatu ahal dira: udal erroldaren bidez, egoitza non den autonomi erkidego edota udal hartako erregistro bereziaren bidez, edo agiri publiko bidez. Elkartzetako hori iraungitzean, elkarrekin bizi diren kide bietako edozeinek eskatu egin beharko du erregistroetako inskripzioa indargabetzea edo agiri publikoak indargabetzea. Horiek indargabetu gabe, ezin izanen da beste inskripziorik egin.

II. TITULUA

Legeen aldaketak

LEHENENGO KAPITULUA

Kode Zibilaren aldaketak

4. artikulua. Kode Zibilaren 14. artikuluko 4. idatz-zatia honela geldituko da:

“4. Ezkontzak ez du auzotartasun zibila aldatuko. Hala ere, bi ezkontideetako edonork, baldin eta legez edo egitatez bereizirik ez badaude, bestearen auzotartasun zibila aukera dezake; aukera bera izanen dute ezkontzaren antzeko elkar bizitzaren bidez elkartzetako daudenek, sexu-joera kontuan izan gabe.”

5. artikulua. Kode Zibilaren 15. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra honela geldituko da:

“d) ezkontidearena edo antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi den pertsonarena –sexu-joera kontuan izan gabe.”

6. artikulua. Kode Zibilaren 22. artikuluko 2. idatz-zatiko d) eta e) letrak honela geldituko dira:

“d) Hori eskatzerakoan, espainiar batekin ezkondu edota antzeko elkarbizitza eta afektibitate bidez elkartzetako –sexu-joera kontuan izan gabe– urtebete daramatenek, baldin eta ez badaude legez –ezkonduakoei dagokienez– edo egitatez bereizirik.

e) Espainiar baten alarguna, edo zenuarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, baldin eta, betiere, ezkontidea edo beste pertsona hori hiltzerakoan, ez bazeuden legez bereizirik –ezkontideei dagokienez– edo egitatez bereizirik –elkarrekin bizi izandakoak.”

7. artikulua. Ezkontideen arteko edo epaileak onetsitako antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen arteko akordioak ezean, familia-

ren etxebizitza eta bertako erabilera arrunteko objektuak erabili ahalko dituzte seme-alabek eta horiekin gelditzen den ezkontideak edo antzeko afektibitate harremanean bizi den pertsonak.

Seme-alaba batzuk batekin eta besteak beste-arekin gelditzen badira, epaileak egoki juzkatzen duena ebatziko du.

Seme-alabarik ezean, erabaki ahalko da ondasun horien erabilera, zuhurki ezartzen den epe baterako, titularra ez den ezkontideari edo antzeko afektibitate harremanean bizi den pertsonari dagokiola. Betiere, egoerak hala eskatuko balu eta babes gehien behar lukeen interesa balitz.

Titularra ez den ezkontideari edo antzeko afektibitate harremanean bizi den pertsonari etxebizitzaren eta ondasunen erabilera dagokiola ezartzeko, beharrezkoa izanen da bi aldeen baimena, eta, behar izanez gero, baimen judiziala.

8. artikulua. Kode Zibilaren 116. artikulua honela geldituko da:

“116. artikulua. Senarraren seme-alabatzat joko dira ezkontzaren ondoren jaiotzen diren haurrak, eta amarekin antzeko afektibitate harremana duen gizonezkoaren seme-alabatzat bikote egonkorren erregistroan izena eman ondoren jaiotzen direnak; halakotzat joko dira, halaber, ezkontza desegin edo ezkontideak legez edo egitatez bereizi, edota elkarrekin bizi direnak egitatez bereizi eta hirurehun egun igaro baino lehen jaiotzen diren haurrak.”

9. artikulua. Kode Zibilaren 143. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da:

“1go. Ezkontideak edo antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi direnak –sexu-joera kontuan izan gabe.”

10. artikulua. Kode Zibilaren 144. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da:

“1go. Ezkontideei edo antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi direnei –sexu-joera kontuan izan gabe.”

11. artikulua. Kode Zibilaren 175. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da:

“1. Adoptatzaileak 25 urte beharko ditu izan adoptatzeko. Adopzioa bi ezkontideek edo bikote egonkor bateko kide biek egiten dutenean, nahikoa izanen da bietako batek izatea adin hori. Nolanahi ere, adoptatzaileak, gutxienez, adoptatutakoak baino hamalau urte gehiago izan beharko ditu.”

12. artikulua. Kode Zibilaren 175. artikuluko 4. idatz-zatia honela geldituko da:

“Bi ezkontideek edo bikote egonkor bateko kideek soilik egin ahal izanen dituzte adopzioak; beste inolako pertsona elkartek ezin izanen du egin adopziorik.”

13. artikulua. Kode Zibilaren 176. artikuluko 2. idatz-zatiaren 2. zenbakia honela geldituko da:

“2gn. Adoptatua adoptatzailearen ezkontidearen seme edo alaba bada, edo antzeko afektibitate harremana izan eta adoptatzailearekin bizi den pertsonarena bada –sexu-joera kontuan izan gabe.”

14. artikulua. Kode Zibilaren 178. artikuluko 2. idatz-zatiaren 1. zenbakia honela geldituko da:

“1go. Adoptatzailearen ezkontidearen seme edo alaba bada, edo antzeko afektibitate harremana izan eta adoptatzailearekin bizi den pertsonarena bada –sexu-joera kontuan izan gabe.”

15. artikulua. Kode Zibilaren 181. artikuluko 2. lerrokada honela geldituko da:

“Desagertu den pertsonaren ezkontide adinez nagusia izanen da desagertuaren berezko ordezkari eta aldezkari, edo desagertuarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsona adinez nagusia –sexu-joera kontuan izan gabe–. Horietakoren baten ezean, eginbide horiek familiarreko gertukoak –laugarren mailakoa izanen da gehienez ere– eginen ditu, eta horrek ere adinez nagusia beharko du. Familiarreko ez bada edo agertu ez badira edo premia nabaria gertatuz gero, epaileak fidagarria eta gizalegez jokatzeari ezaguna den norbait izendatuko du, Fiskaltza entzun ondoren.”

16. artikulua. Kode Zibilaren 182. artikuluko 1. lerrokada honela geldituko da:

“Hurrengoek izanen dute –nahiz eta ez den ezartzen lehentasun hurrenkerarik– legezko absentzi deklarazioa eragin eta premiatzeko bete-beharra: lehenengo, absentzearen ezkontideak, baldin eta legez bereizirik ez badago, edota absentzearekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsonak, sexu-joera kontuan izan gabe; bigarrenik, laugarren maila arteko odol-ahaideak; hirugarrenik, fiskaltzak, bere kabuz edo norbaitek hori salatu duelako.”

17. artikulua. Kode Zibilaren 184. artikuluko 1. zenbakia honela geldituko da:

“1go. Desagertu den pertsonaren ezkontidea edo desagertuarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, baldin eta horiek ere ez badira desagertu; horiek adinez

nagusi beharko dute eta ezin izanen dira legez edo egitatez bereizirik egon.

18. artikulua. Kode Zibilaren 202. artikulua honela geldituko da:

“202. artikulua. Ez gai deklarazioa hurrengoek eraginen dute: ezkontideak edo ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe–, edo euren ondorengoek, ustezko ezgaiaren aurreko ahaideek edo anai-arrebek.

19. artikulua. Kode Zibilaren 294. artikulua honela geldituko da:

“294. artikulua. Zarrastel deklarazioa hurrengoek eragin ahalko dute: ezkontideak edo ustezko zarrastelarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe–, ustezko zarrastel horren ondorengo eta aurreko ahaideek, baldin eta horren mantenua jasotzen badute edo mantenu hori eska diezaioketenean, eta aurreko horietako legezko edozeinek. Legezko ordezkariak ez badute eskatzen deklarazio hori, Fiskaltzak egiten du.”

20. artikulua. Kode Zibilaren 756. artikulua 2. zenbakia honela geldituko da:

“2gn. Epaiketa batean hurrengo hauetakoren bat hiltzen saiatzeagatik kondenatzen dutena: testamentugilea, horren ezkontidea edo testamentugilearekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, edota testamentugilearen ondorengo edo aurreko ahaideak.”

21. artikulua. “Kode Zibilean senipartea arautzen duten artikuluek ezkontideei esleitzen dizkieten eskubideak, oinordetza testamentuduna dela eta esleitzen dizkietenak alegia, bikote egonkorrei ere aplikatuko zaizkie, hau da, ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta bikote egonkorra osatzen dutenei –sexu-joera kontuan izan gabe.”

22. artikulua. Kode Zibilaren 913. artikulua honela geldituko da:

“913. artikulua. Testamentu bidezko oinordekorik ez badago, legeak hurrengoan esku uzten du haren herentzia: familiartekoen esku, ezkontide alargunaren esku edo zenduarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsonaren esku –sexu-joera kontuan izan gabe–, eta Estatuaren esku.”

23. artikulua. Kode Zibilaren 943. artikulua honela geldituko da:

“943. artikulua. Aurreko bi ataletan aipaturiko pertsonarik ezean, hurrengoek hartuko dute oinordetza: bizirik gelditu den ezkontideak edo zenduarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe– eta albo-ahaideek, hurrengo artikuluetan ezarritako hurrenkeran.”

24. artikulua. Kode Zibilaren 944. artikulua honela geldituko da:

“944. artikulua. Aurreko edo ondorengo ahaiderik ez badago, hurrengoek hartuko dituzte oinordetza, albo-ahaideekiko lehentasunez, zenduaren ondasun guztiak: bizirik gelditu den ezkontideak edo zenduarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe.”

25. artikulua. Kode Zibilaren 954. artikulua honela geldituko da:

“954. artikulua. Aurreko artikuluek ezarritako pertsonarik ezean herentzia hartzeko, laugarren mailara arteko alboko ahaideek hartuko dute herentzia; eta maila hori baino handiagoa duten alboko ahaideek ezin izanen dute herentzia abintestato hartu oinordetza.”

26. artikulua. Kode Zibilaren 1040. artikulua honela geldituko da:

“1040. artikulua. Ez dira kolazionatuko seme edo alabaren ezkontideari dohaintza bidez emanikoak, eta, ezta ere, seme edo alabarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsonari emanikoak –sexu-joera kontuan izan gabe–; ordea, aitak edo amak zerbait biei badie, semeak edo alabak dohaintza bidez emaniko horren erdia kolazionatu beharko du.”

27. artikulua. Kode Zibilaren 1247. artikulua honela geldituko da:

“1.247 artikulua. Hurrengoak ezin izanen dira lekuko izan legeak hala ezartzen duelako:

1go. Auzian interes zuzena dutenak.

2gn. Aurreko ahaideak ondorengo ahaideen auzietan, eta alderantziz.

3gn. Aitaginarreba edo amaginarreba suhi edo errainaren auzietan, nahiz eta lotura, ezkontzaren orde, ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan –sexu-joera kontuan izan gabe.

4gn. Senarra emaztearen auzietan, eta alderantziz; hori aplikatuko zaie, halaber, ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi diren pertsonen –sexu-joera kontuan izan gabe.

5gn. Egoera edo lanbidea dela-eta egoera edo lanbide horri buruzko zerbait isilpean gorde behar dutenak.

6gn. Zenbait egintzatan lekuko izateko bereziki ezgaituak daudenak.

“2, 3 eta 4. zenbakietan ezarritakoa ez da aplikatuko seme edo alabaren jaiotza edo heriotza frogatu behar denetan, edota bestela frogatu ezin daitekeen familia barreneko beste edozein gertakari frogatu behar denetan.”

BIGARREN KAPITULUA **21/1987 Legearen aldaketa**

28. artikulua. Kode Zibileko zenbait artikulua –adopzioari buruzko artikulua– aldatzen dituen azaroaren 11ko 21/1987 Legearen hirugarren xedapen gehigarria honela geldituko da:

“Hirugarrena. Ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin modu egonkorrean bizi diren pertsonen ere –sexu-joera kontuan izan gabe– aplikatuko zaizkie lege honek ezkontideentzako ezarritakoak; hain zuzen ere, ezkontideek batera adingabeko bat adoptatzeko ahalmenari buruzko xedapenak.”

HIRUGARREN KAPITULUA **Langileen Estatutuaren aldaketak**

29. artikulua. Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Testu Birbilduaren 1. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letra honela geldituko da:

“e) Famili lanak, lan horretan ari direnak soldatapekoak direla frogatzen denean izan ezik. Hone-tarako, hurrengoak joko dira familiartekotzat, betiere enpresaburuarekin bizi badira: ezkontidea edota enpresaburuarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak eta, halaber, bestelako ahaideak, bigarren mailara artekoak –horiek barne–, odolekoak nahiz ezkontza bidezkoak, edota adopzio bidezkoak.”

30. artikulua. Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Testu Birbilduaren 37. artikuluko 3. idatz-zatiko a) letra honela geldituko da:

“a) Hamabost egun, ezkonduz gero edo ezkontzaren antzeko urtebeteko elkar bizitza –sexu-joera kontuan izan gabe– ziurtatuz gero.”

31. artikulua. Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen

Estatutuaren Testu Birbilduaren 40. artikuluko 3. idatz-zatia honela geldituko da:

“3. Lekualdatzea dela-eta egoitza aldatzen badu ezkontideetako batek edo ezkontzaren antzeko afektibitate harremanez elkartuta –sexu-joera kontuan izan gabe– dauden bi kideetako batek, besteak, enpresa bereko langile bada, herri berera lekualdatzeko eskubidea du, baldin eta han lanposturik badago.”

LAUGARREN KAPITULUA **Gizarte Segurantzari buruzko** **Lege Orokorraren aldaketak**

32. artikulua. Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Birbilduaren 7. artikuluko 2. idatz-zatia honela geldituko da:

“2. Aurreko idatz-zatian, ez dira hartuko besteren konturako langiletzat hurrengoak, non eta ez den kontrakoa frogatzen: ezkontidea edota enpresaburuarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, enpresaburuaren ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak eta, halaber, bestelako ahaideak, bigarren mailara artekoak –horiek barne–, odolekoak nahiz ezkontza bidezkoak, edota adopzio bidezkoak. Horiek guztiak ez dira besteren konturako langiletzat hartuko, baldin eta enpresaburuaren lantokian edo lantokietan egiten badute lan, eta haren etxean bizi eta haren kargura badaude.”

33. artikulua. Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Birbilduaren 173. artikulua honela geldituko da:

“173. artikulua. Hileta-gastuei aurre egiteko laguntza.

Kausatzailea hilez gero, hileta-gastuak egin dituenak eskubidea izanen du gastu horiei aurre egiteko laguntza berehala jasotzeko. Non eta besterik frogatzen ez den, gastu horiek hurrenkera honetan egindakotzat joko dira: bizirik gelditu den ezkontidea edo kausatzailearekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremanez elkartuta zegoen pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe–, seme-alabak eta zenduaren familiartekoak baldin eta normalean harekin bizi badira.”

34. artikulua. Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Birbilduaren 174. artikuluko 1. idatz-zatiari lerrokada bat gehituko zaio; hain zuzen, hauxe:

“Halaber, pentsioa izateko eskubide bera izanen du, eta baldintza beretan, zenduarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe.”

35. artikulua. Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Birbilduaren 177. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da:

“1. Lan-istripu edo lanbide-gaixotasun baten ondorioz gertatzen bada heriotza, bizirik gelditu den ezkontidea edo zenduarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi zen pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe– eta umezurtzek eskubidea izanen dute oroharreko kalte-ordaina hartzeko, zeinaren zenbateko uniforme lege honen erregelamendu orokorretan zehazten baita.”

36. artikulua. Maiatzaren 30eko 2065/1994 Dekretuaren 100. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra honela geldituko da:

“Idatz-zati honetan, familiartekotzat hartuko dira modu egonkorrean ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi diren pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe.”

BOSGARREN KAPITULUA

Funtzio Publikoaren Aldaketarako Neurrei buruzko Legearen aldaketak

37. artikulua. Funtzio Publikoaren Aldaketarako Neurrei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 20. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra honela geldituko da:

“a) Lehiaketa: lanpostuak betetzeko sistema normala da, eta, lehiaketan, deialdiak eskatzen dituen merezimenduak besterik ez dira kontuan hartuko; deialdiak, besteak beste, hurrengoak eskatuko ditu, baldin eta ezkontidea edo ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta lehiakidearekin bizi den pertsona funtzionarioa bada: lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera eskakizunak, gradu pertsonal jakin bat, eginiko lanak –horiek baloratu ahal izateko–, gaitutako prestakuntza- eta hobetze-ikastaroak, antzinatasuna eta aurretik duen destinoa.”

38. artikulua. Funtzio Publikoaren Aldaketarako Neurrei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letra honela geldituko da:

“d) Familiaren bateratzeagatik borondatezko eszedentzia eman ahalko zaie funtzionarioei, bal-

din eta ezkontidea edo funtzionarioarekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi den pertsona –sexu-joera kontuan izan gabe– beste udal batean bizitzen ari bada behin betiko lanpostuan aritzeagatik –karrerako funtzionarioa edo lan funtzionarioa izatea lortu eta horretan ari delako– edozein administrazio publiko, erakunde autonomo edo Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzailetan, eta, halaber, edozein konstituzio organotan edo botere judizialeko organotan. Eszedentzia hori, gutxienez, bi urtetakoa izanen da eta gehienez hamabostekoa.”

SEIGARREN KAPITULUA

Klase Pasiboei buruzko Legearen aldaketak

39. artikulua. Estatuko Klase Pasiboei buruzko apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikuluko 1. idatz-zatia honela geldituko da:

“1. Alarguntzako pentsioa jasotzeko eskubidea izanen dute eskubide pasiboen kausatzailearen legeko ezkontide direnek edo izan direnek, eta baita sortzaile horrekin ezkontzaren antzeko afektibitate harremana izan eta harekin bizi izandako pertsonak –sexu-joera kontuan izan gabe–; zenbat denbora bizi izan diren elkarrekin, horren arabera jasoko dute pentsioa, eta ez dira kontuan hartuko ez zergatik deuseztatu zen ezkontza edo zergatik gertatu zen dibortzioa, eta ezta elkarrekin bizitzeari uzteko arrazoiak ere.”

Xedapen gehigarriak

Lehena. Gobernuak aldatu eginen ditu lege mailarik izan ez eta lege hau aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak.

Bigarrena. Tributuei dagokienez, ondorio guztietarako, elkarbizitza ezkontzaren parekoa izanen da, baldin eta elkarbizitzak eta baita haren egiaztapenak ere lege honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe uzten dira lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta lege honek aitortzen dituen eskubideek berehala izanen dute eragina aurretik eratutako elkarteengan.

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena onetsi zuen, Kongresuko Mahaira bildaltzeko, Konstituzioko 87.2 artikulua xedatutakoarekin bat.

Proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2000ko uztailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Konstituzioko 3. artikulua xedatzen du gaztelania dela Estatuko hizkuntza ofiziala, baina Konstituzioko arau horrek berak dio Espainiako gaineko hizkuntzak ere ofizialak izanen direla autonomia erkidegoetan, estatutuetan ezarritakoaren arabera, eta, gainera, azpimarratzen du Estatuko hizkuntz aniztasuna bereziki errespetatu eta babesteko dela.

1999ko martxoaren 9ko bilkuran, Diputatuen Kongresuak gehiago zabalaz onetsi zuen Kataluniako Parlamentuaren lege proposamen bat aintzat hartzea; hain zuzen, Estatuko hizkuntza ofizialak euroaren billeteetan eta txanponetan erabiltzeari buruzko lege proposamena. Eta apirilaren 13ko bilkuran, gehiago zabalaz orduan ere, beste lege proposamen bat aintzat hartzea onetsi zuen: pasaporteetan eta nortasun agirietan Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialak sartzeari buruzko lege proposamena. Bi erabaki horiek erakusten dutenez, gaztelaniaz beste hizkuntza ofizialak ere ezarri nahi dira Estatuko sinboloetan; politikoen nahi hori bat dator Konstituzioak agindutakoarekin; alegia, hizkuntz aniztasuna errespetatu eta babestu beharrek.

2000ko urtarrilaren 1ean ospatuko da Espainiako lehen posta-zigilu modernoaren 150. urteurrena. 149 urtetan, gaztelaniaz landa, Espainiako beste hizkuntza batean osorik idatzitako zigilurik ez du kaleratu Espainiako Estatuak, eta 30 zigilu besterik ez du kaleratu (ehu-

neko 0,83) euskaraz, katalanez edo galegoz hitzen bat edo beste duenik. Baina egoera oso bestelakoa da Europako eta munduko beste estatu askotan, zigiluak eta askotariko postagaiak kaleratzen baitituzte, maiz, herritarrek darabiltzaten hizkuntza guztietan. European, hala egiten da Belgikan, Danimarkan, Finlandian, Irlandan, Norvegian eta Suitzan.

Nazioarteko aurrekari horiek eta Konstituzioaren agindua –hizkuntz aniztasuna errespetatu eta babestu beharra– kontuan hartuz, arrazoizko proposamena da gaztelaniaz gain Estatuko beste hizkuntzak ere Espainiako zigiluetan sartzea. Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalak 50 zigilu berri kaleratzen ditu urtero, eta, beraz, posible da hizkuntza horiek guztiak agertzea segituan, era egokian, Estatuaren sinbolo honetan.

Hizkuntzen erabilerari buruzko proposamen honek ez ditu baztertzen autonomia erkidegoetako estatutuen arabera ofizialak ez diren hiru hizkuntzak: Vall d'Arango okzitaniara, asturierara eta aragoiara; izan ere, Katalunia, Asturias eta Aragoiko autonomia estatutuek aldarrikatzen duten legeaz, horiek ere merezi dute errespetua eta babesa. Bestalde, gogoan izan behar da, Kataluniako Parlamentuak onetsitako lege baten arabera, Vall d'Aranen ofiziala dela bertako hizkera (okzitaniararen aldaera).

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak ondorengo lege proposamena aurkezten du Diputatuen Kongresuaren Mahaian.

Lehen artikulua.- Aurrerantzean gaztelaniaz beste hizkuntza ofizialetan egonen dira Txanponen eta Zigiluen Fabrika Nazionalak (FNMT) jaulkitako posta-zigiluak, frankeo aldakorreko zigilu automatikoak, posta-etiketak, zerbait ospatzeko diren posta-etiketak, postalak, posta-txartelak, aerogramak, luxu-probak, ospakizunei buruzko proba ofizialak eta beste edozein postagai. Baina hori ez da eragozpen izan Posta zerbitzu unibertsalari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legearen 19. artikuluan Espainiako Estatuko hizkuntz anitzen errealitatea aitortu eta babestearen gainean ezarritakoa betetzeko. Beste zigilu-jaulkipen batzuk ere egin ahal izanen dira, horretarako justifikazioa dagoenean, autonomi estatutuetan babestuta dauden beste hizkuntza batzuetan.

Bigarren artikulua.- Posta-zigilu berriak eta beste posta-gai guztiak aurkeztean egiten den publizitate instituzionalak berariaz aipatu beharko du, Estatuko eleaniztasuna islatzearen, gaztelaniaz beste hizkuntzak erabili direla.

Hirugarren artikulua.- Lege honek indarra hartu eta sei hilabete baino lehen sartu beharko dira gaztelaniaz beste hizkuntzak Espainiako zigiluetan eta gainerako posta-gai guztietan.

Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2000ko ekainaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen

hori 2000ko maiatzaren 10eko 39 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu legez kanpoko jokoak zein bat-bateko loteriaren sorrera

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 22an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu legez kanpoko jokoak zein bat-bateko loteriaren sorrera".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu legez kanpoko jokoak zein bat-bateko loteriaren sorrera

1. Nafarroako Parlamentua legez kanpoko jokoen aurka azaltzen da eta konpromisoa hartzen du horiek jazartzeko, kalitate eskaseko enplegua sortu eta ezkutuko lana sustatzen dutelako eta ez dutelako ezertan ere laguntzen minusbaliatuen lan-baldintzak hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentua bat-bateko loteria sortzearen aurka dago, ONCErentzat zein minusbaliatuen elkarreentzat izan ditzakeen ondorio kaltegarriengatik, eta Nafarroako Gobernua premia-tzen du ausazko joko hori garatzeko ONLAERI (Organización Nacional de Loterías y Apuestas del Estado) emandako baimena bertan behera utz dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 22an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bi hilabeteko epean Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan. Erakunde publi-

ko horrek

– landa-inguruneari buruzko Nafarroako Gobernuaren politika sektorialak koordinatuko ditu,

– garapenerako lankidetzak publiko eta pribatua eskualde zein toki mailan integratuko du, eta

– dauden garapen-entitateen lanari sostengu emanen dio.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elikagaien araei buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 22an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elikagaien araei buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elikagaien araei buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean elikagaien bete beharreko araei buruzko foru lege

proiektu bat aurkez dezan. Foru lege proiektuak ondokoak bilduko ditu: Nafarroan ekoiztutako glutendun elikagaien etiketatuan galburuaren ikurra nahitaez erabili behar izatea, elikagaien kontrola –salgai dauden elikagaien ikuskaritza eta analisia– eta diru aldetik larri dabilzan zeliakoen beharri dietetikoak asetzeko laguntzak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuari berariaz eska diezaion estatu mailan elikagaiei buruzko araudia garatzeko. Araudi horrek ondokoak bilduko ditu: behar bezalako etiketak –kontsumitzaileari elikagaiak glutena duela abisatzeko– eta gisa horretakoen ikuskaritza eta kontrola –gai-xotasun zeliakoak eragindako arazoei behar bezala aurre egiteko.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki irizitako akordioak eta hitzarmenak egin ditzan zeliakoekin lan egiten duten elkarte eta entitateekin, haien bizi-kalitatea hobetzarren.

Erabakia. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoa kentzeko eskatzen da

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 22an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoa kentzeko eskatzen da".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan

ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Bardeako tiro poligonoa kentzeko eskatzen da

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, sei hilabeteko epean, beharrezko ekintza eta izapidaketak egin ditzan Nafarroa-Estatua batzorde mistoa sortzeko, eta Espainiako Estatuarekin negoziaketak has ditzan, Errege Bardeako lurraldearen jabetza soila doan lagatzeko Foru Komunitateari, betiere, Bardeako gozamina dutenen eskubide tradizionalak zainduz. Nafarroa ordezkatzeko dute batzorde misto horretan, Gobernuaren ordezkariak, Parlamentuko Taldeenak eta Errege Bardeako Komunitatearenak.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du behar besteko finantzaketarako bideak ezarri eta 2001 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan jaso ditzan. Horrela, Bardeako Komunitatearen antolaketaren

eta kudeaketaren bideragarritasuna bermatuko da, ezohiko toki entitate gisa, gaur egungo egoerarekin pareka daitekeen maila berean.

Nafarroako Parlamentuak, halaber, Nafarroako herritarren nahiaren ordezkari nagusia izaki, gaitzetsi egiten du Bardea tiro zelai gisa erabiltzea, 2001eko ekainean egungo kontratua amaitzen denetik aitzina. Ondorioz, Espainiako Gobernuaren aurrean, Bardeako lurralde zati hori tiro zelai gisa erabiltzeko lagapen-kontratua berritzearen aurkako jarrerari eusteko konpromisoa hartzen du.

Jarrera horrekin bat, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Naturguneei buruzko 9/1996 Foru Legea eta Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen 10/1999 Foru Legea aldatzeko borondatea adierazten du. Aldaketa horrekin, Natur Parkearen erabilera eta jarduera, 2001eko ekainaren 10etik aitzina, egun tiro zelaia dagoen lursaila hedatuko da.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Itoizko urtegiaren ingu-

runea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin dezan. Helburua da bertako Udalek eta Nafarroako gizarte osoak baliatu ahal izatea Itoizko urtegiaren erabilera erabatekoak ekarriko duen errealitate berria.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Garapen Sozioekonomikorako Plan bat presta dezan, Itoizko urtegiak ukitzen duen Agoizko eskualderako. Planaren onuradunak eskualde horretako herritarrak izanen dira eta konpentsatu eginen ditu, beraiek baitira Itoizko urtegiaren eraikuntzak gehien kaltetu dituenak. Planak komunikabideetan eta oinarrizko azpiegiturretan hobekuntzak jasotzeaz gain, garapen endogenorako (turismoa, ondare kulturala eta abar) formulak aztertu eta erabili beharko ditu. Bertan parte hartu eta lagundu beharko dute ukitutako agente guztiek (Udalek, elkarteek, sindikatuek, enpresek eta abarrek) eta koordinazioa egonen da Nafarroako Gobernuko departamentuen eta Garapen Sozioekonomikorako Plana prestatzeko eta gauzatzeko prozesuan parte hartu duten gainerako administrazioen artean.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure komunitatean oporrak igarotzen dituzten begiraleen eta haurren osasun-premiei erantzuteko agirien banaketarako arauak eman ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure komunitatean oporrak igarotzen dituzten begiraleen eta haurren osasun-premiei erantzuteko agirien banaketarako arauak eman ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure komunitatean oporrak igarotzen dituzten begiraleen eta haurren osasun-premiei erantzuteko agirien banaketarako arauak eman ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du atzerriko haur eta begiraleek, zeinak Nafarroako familiek beren etxeetan hartzen baitituzte oporrak igaro ditzaten –horretarako ekimena hainbat elkarte, Gobernu Kanpoko Erakunde edo partikularrena izanik–, dauzkaten beharizan sanitarioei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurre eginen diela kreditatzen duten agiriak emateko modua arautu dezan, 2000 urteko udan aplikatu ahal izan dadin.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga iruzurrari aurre egiteko plan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga iruzurrari aurre egiteko plan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga iruzurrari aurre egiteko plan bat egin dezan

Nafarroako Gobernuak, 8 hilabeteko epean, iruzur fiskalaren aurkako plan bat eginen du; hartan bilduko ditu giza eta gauza baliabideak hobetzeko neurriak (Foru Ogasuneko ikuskatzailen eta teknikarien lan-baldintzak hobetzea), tributurordainketa erraztekoak, eta baita delitu fiskalaren inguruko lege-aldaketak ere.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eta Erdialdearen Garapenerako Partzuergoaren artean lankidetzaz hitzarmena egin eta sina dezan, aipatutako partzuergoak, Leader eta Interreg ekimen komunitarioen esparruan, etorkizunean, prestakuntza-jarduerak finantzatu ahal izan ditzan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) elkartearekin

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) elkartearekin".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin eta TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) elkartearekin

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eta TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmen bat sina dezan, elkarre horrek Leader eta Interreg ekimen komunitarioen esparruan prestakuntza jarduketak finantzatu ahal izan ditzan.

Mozioa. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da".

Biltzarrak, 2000ko ekainaren 23n egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko apirilaren 17ko 34 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---